

Zizurkilgo indarkeria matxistari aurre
egiten dioten emakumeen arreta
integral eta egokia bermatuko duen
koordinaziorako protokoloa

2021





ZizurkilgoUdala

EMAKUNDEK DIRUZ LAGUNDURIKO PROIEKTUA:



EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDE
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER

PROZESUAREN DINAMIZAZIOA ETA AHOLKULARITZA TEKNIKOAK:



Aurkibidea

1. Hitzaurrea	6
2. Protokoloaren diseinu prozesuari buruz	8
Partaidetza prozesuen printzipio orokorrak	10
Printzipio konkretuak	11
Prozesuko partaideak	11
Burututako lan saioak	12
3. Indarkeria matxistari dagokion testuinguru normatibo eta teorikoa	14
Erreferentziazko marko normatiboa	15
Erreferentziazko oinarri teoriko eta terminologikoa	16
4. Hartutako konpromisoak	19
5. Eragilekako prozeduren azalpena	22
Zuzeneko eragileak	24
Esparru POLIZIALaren jarduna	24
OSASUN esparruaren jarduna	31
Tokiko GIZARTE ZERBITZUen jarduna	35
UDALEKO BESTE TEKNIKARI edo BATZORDEKIDEAK	40
UDAL POLITIKARIAK	43
Zeharkako eragileak	45
HEZKUNTZA esparruaren jarduna	45
HERRIKO KIROL ELKARTEA ETA OSTALARIAK	50
6. Indarkeriari aurre egiteko prozesuan kontutan hartu beharreko gakoak eta printzipio gidariak	51
Kontutan hartu beharreko gakoak eskuhartze feminista bat izan dadin	52
Protokoloaren printzipio gidariak	54
7. Prozesuaren ikuspegi orokorra	56
8. Koordinazio eta jarraipenerako egiturak	60
Zuzeneko eragileen taldea	61
Partaideak	61

Helburuak eta funtzioak:	61
Funtzionamendua eta lidergoa.....	62
9. Erantzun publikoa artikulatzeko prozedura 63	
Indarkeria sexista kasuen aurrean jarraitu beharreko erantzun publikoari buruzko irizpideak.....	64
Erantzuna koordinatzeko egitura.....	65
Prozedura: Egitura muina eta prozedurak	65
Taldearen jokabide kodea	66
10. Tokiko errekurtsoen gida 67	
Indarkeriari aurre egiteko ERAGILEEN zerrenda.....	68
Udaleko zerbitzuak	68
Mugimendu feminista eta emakume talde antolatuak.....	68
Zizurkilgo bestelako eragileak.....	69
Osasun zerbitzuak.....	69
Ertzaintza eta Udaltzaingoa	69
Epaitegia	70
Gipuzkoa edota EAE mailako beste eragileak	70
Indarkeriari aurre egiteko BALIABIDEEN zerrenda	72
Baliabide ekonomikoak.....	72
Gizarte Larrialdietarako laguntza (Udala)	72
Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI).....	72
Ordainketa bakarra (Eusko Jaurlaritza)	72
Inserziorako Errenta Aktiboa (RAI).....	72
Egoitza baliabideak	73
ETXEBIDE (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua)	73
ALOKABIDE (Eusko Jaurlaritza, Babestutako Alokairu Zerbitzua).....	73
Bestelako baliabideak	73
Banakako laguntza psikosoziala	73
Arreta psikologiko banakakoa eta taldekakoa	73

Aholkularitza juridikoa edo arreta sozio-juridikoa	74
Arreta psikosozial anbulatorioa	74
Berehalako harrerako edo egonaldi laburreko zentroa (Urrats).....	74
Egonaldi ertaineko harrera zentroa (Bidean).....	75
Autonomia pisuak.....	75
11. Baimen eskaerak	76
12. Datu bilketarako fitxa	79

1

Hitzaurrea

Zizurkilgo Udalak azken hamar urte hauetan bere agendan oso presente izan du emakumeen* aurkako indarkeria eta ibilbide sendoa egin du azken urteotan. Erronka txikiekin hasi zen, baina pausu batek bestea ekartzen duenez, JAIETAKO PROTOKOLOA idatzi ondoren, JAI BERTINZALEAGOAK LORTZEKO PROZESU PARTE HARTZAILEA bideratu zuen. Hauxek izan ziren hasierako zutabeak, baina jaietako espazio eta unetik atera eta EMAKUMEEN* AURKAKO INDARKERIAK berdintasun politketan bere tarte behar zuela ikusi zen.

Zoritxarrez, gero eta ohikoagoak dira INDARKERIA kasuak eta ezinbestekoa da jarrera horiei erantzun sendo eta argia emango dion PROTOKOLOA sortu, adostu eta idaztea. Ez da lan erraza izan eta ezinbestekoa izan da instituzio desberdinen partehartzea eta baita herri eragileen aportazioak ere. Ia urtebeteko lanaren emaitza da hau.

Hasierako eztabaida protokoloa beraren izena izan zen eta ZIZURKILGO INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO PROTOKOLOA jarri zitzaion. Izenak berak, emakumeen* kontrako indarkeriaz gain, indarkeria sexista eta matxistaren beste forma batzuk ere jaso nahi ditu, hala nola transfobia, lesbofobia eta homofobia. Argi geratu da dokumentu honek bizia izan behar duela, etengabe gizartean ematen diren aldaketetara egokitu behar duena eta, horixe da, talde eragileak beregain hartu duen erronka: etengabe formakuntza jaso eta etenik gabe protokoloaren beraren jarraipena eta egokitzapena egitea.

Protokolo honek, hasiera-hasieratik oso argi izan du emakumea* erdigunean jarri behar dela eta bidea egiten lagunduko dion ipar orratza izan nahi duela. Zaila izaten da indarkeria jasaten duten emakumeen* errealitatea, baina bide horretan laguntzen duten instituzio desberdinen arteko koordinazio egokia bada, bidea arintzeko modua dela uste dugu. Helburu hori lortuko bagenu, protokolo honek balio duela esan genezake.

ZIZURKILGO INDARKERIA MATXISTA PROTOKOLOKO BATZORDEA

2

Protokoloaren diseinu prozesuari buruz

Esan bezala, protokolo honen helburua argia da, indarkeria matxista pairatzen dutenei babesa eta arreta egokia bermatzea eskura dauden baliabide guztiak eskainiz. Horretarako eragileen arteko harreman eta koordinazioa hobetu eta sistematizatzea beharrezkoa da indarkeria kasu hauen aurrean eman beharreko pausuak argi izateko. Helburu horrekin, eta Farapi Koop. Elkartearen bidelaguntzarekin, protokolo hori osatzeko prozesua hasi zen.

Lehenik eta behin, indarkeria matxistaren herriko errealitatearen diagnostikoa egin zen. Herriko errealitatea ezagutzea ezinbestekoa baita protokoloa herriko beharretara egokitzeko. Hau da herriko protokoloen bereizgarri eta balio handiena: herriko errealitatetik sortua eta herriko errealitateri erantzuteko diseinatua dela.


Diagnostiko honetan, Zizurkilen indarkeria matxistari aurre egiteko dauden baliabideen eta eragileen deskribapena, prozeduraren analisia eta erakunde ezberdinen arteko koordinazioaren inguruko azterketa burutu da, eta beraz, protokoloak jarraitu beharreko ildo batzuk markatzeko balio izan du.

Fase honetan (Diagnostikoan) datu kuantitatiboen bilketaz gainera, taldeko elkarriketak egin ziren 2021 urtearen 2. zatian zehar. Honakoak izan ziren parte hartu zuten eragileak:

ORDEZKARITZA ESPAZIOA		Izen-abizenak
1	Zizurkil Udala, alkatetza	Iker Urruzola
2	Berdintasun saila, maila teknikoa	Ainhoa Larrea
3	Berdintasun saila, maila politikoa	Matti Navas
4	Ongizate saila, maila teknikoa	Anabel Balerdi
	Ongizate saila, administrazioa	Eneko Dorronsoro
5	Ongizate saila, maila politikoa	Maite Amenabar
7	Udal harrera, administrazioa	Itziar Lejardi
8	Tolosaldeko Aniztasun saila, maila teknikoa	Amaia Iturria
9	Zizurkil-Villabona osasun-zentroa	Irati Iza
10	Tolosaldea ESI	Arantxa Urruzola
11	Hernaniko ertzain-etxea	Garikoitz/ Aitor
12	Zizurkilgo udaltzaingoak	Xabi Blanch / Garikoitz Tapia
13	Zubimuxu ikastola	Nerea Urdanpileta
14	Otaño Ikastetxea	Ane Juarez/ Belen Zudaire
15	Danenak kirol elkarte	Josu Sarasola
16	Atxulondo Taberna	Xabi Tello/ Vitor Gómez

Behin diagnostikoa izanda, bete-betean protokoloaren diseinua jarri zen martxan. Diseinu hau partaidetza prozesu baten bitartez izan da, protokoloaren diseinua elkarlanean sortu ahal izateko. Azken batean, indarkeriari aurre egiteko prozesua koordinatua izan dadin eta tokiko errealitateari erantzutea nahi badugu, oinarritzkoa da koordinazioan eta elkarlanean egitea, eta ahal den eragile gehien artean eraikia izatea. Horrek lagunduko du etorkizunari begirako hartu-eman arina eta efektiboa.

Indarkeria matxistaren kontrako protokoloa osatzaren prozesuak ibilbide hau izan du.



Partaidetza prozesuen printzipio orokorrak

Momentu oro partaidetza prozesu batek izan beharreko printzipioak jarraitu dira:

- **Parte-hartzea:** Parte-hartzea ez da informazioa eman eta iritzia eskatzera mugatzea. Izan ere, benetako parte-hartzea gauzak ezagutu, elkarrekin landu, aztertu eta denon artean zerbait sortzean gertatzen da. Uneko errealitatea aldatzeko baldintza subjektiboak eta objektiboak sortu behar dira, eta horretarako, bidea lan-prozesua bera izango da.
- **Komunikazioa:** Komunikazioa arrakastarako gakoa da horrelako egitasmoetan. Komunikazioa beharrezkoa da uneoro, prozesua abiatu aurretik, prozesuak irauten duen bitartean eta prozesua amaitutakoan, besteak beste, partaideei asmoen berri emateko, prozesuan parte har dezaten gonbidapena egiteko, prozesuaren eta emaitzen berri emateko, etab.
- **Malgutasuna:** Prozesuaren oinarria pertsonak dira. Horrenbestez, pertsonekin lan egitean oinarritzen denean prozesua, aurreikusitako lanak eta epeak moldagarriak izan behar dute. Prozesua abiatu aurretik eta irauten duen bitartean, prozesuaren arduradunek eta parte-hartzaileek beharrezkotzat jotzen dituzten aldaketak proposatu behar dituzte eta, egokitzen jotzen diren neurrian, prozesuan zehar doikuntzak egin behar dira.
- **Hezkuntza - prozesua:** Emaitzez gain, prozesuak berak protagonismo berezia izan behar du. Horrek esan nahi du, emaitza ez ezik, prozesuaren xedeak ere izan behar duela bertan parte hartzen dutenek (norbanako, talde eta erakundeek) prozesuan ikastea, ezagutza elkarrengandik jasotzea eta elikatzea, elkarrekin elkarbanatuz. Partaidetza-prozesu batek eraldaketa eta hobekuntza prozesu bat izan behar du.
- **Subjektibitatea:** Prozesuaren ardatza pertsonak dira eta, horregatik, pertsonen sentimenduek, bizipenek eta pertsonen arteko harremanek pisu nabarmena dute

prozesuaren urrats guztietan; besteak beste, egitasmoaren partaide diren kideen arteko ezagutza eta konfiantza landu behar dira, beraien arteko giroa ona izan dadin eragiteko.

Eraldaketa prozesua arrakastatsua izateko, beharrezkoa da jarrerak aldatzea eta norbanako bakoitzaren alderdi “pertsonala” ukitzea, hots, subjektibitatea lantzea. Modu berean, eraikuntza kolektiboa egiteko ere ezinbestekoa da. Subjektibitateak oso lotuta daude identitate aniztasunarekin eta bizitzeko modu ezberdinekin.

Printzipio konkretuak

Printzipio hauez gain, badira beste printzipio nagusi batzuk, konkretuki Zizurkilgo Indarkeria Matxistaren aurkako Protokoloa garatzeko partaidetza prozesuan oso kontuan izan direnak:

- **Elkarlana:** Ezinbesteko elementua da esparru ezberdinetako eragileen artean protokoloa landu, adostu eta inplikazioa sustatzeko. Diseinu fasean zehar elkarlan hau sortu eta ondo bideratzeak, oinarri sendoak ezarriko ditu koordinazioan eta protokoloaren funtzionamendu egokia bermatuko.
- **Prozesua:** Protokoloa bera egin eta diseinatzeko prozesuak berak lehentasuna izan du, hau egoki egiteak ziurtatzen baitu protokoloaren beraren (emaitzaren) egokitasun eta sendotasuna. Bestetik, prozesua bera baliatu da partaideen sentsibilizazioa sustatzeko, harremanak sendotzeko edo ikuspegiak elkar banatzeko ere.

Prozesuko partaideak

Hauek dira protokoloaren prozesu osoan parte hartu duten eragile zuzen guztiak:

	ORDEZKARITZA ESPAZIOA	Izen-abizenak
1	Zizurkil Udala, alkatetza	Iker Urruzola
2	Berdintasun saila, maila teknikoa	Ainhua Larrea
3	Berdintasun saila, maila politikoa	Matti Navas
4	Ongizate saila, maila teknikoa	Anabel Balerdi
5	Ongizate saila, administrazioa	Eneko Dorronsoro
6	Ongizate saila, maila politikoa	Maite Amenabar
7	Udal harrera, administrazioa	Itziar Lejardi
8	Tolosaldeko Aniztasun saila, maila teknikoa	Amaia Iturria
9	Zizurkil-Villabona osasun-zentroa	Irati Iza
10	Tolosaldea ESI	Arantxa Urruzola
11	Hernaniko ertzain-etxea	Carmen / Aitor
12	Zizurkilgo udaltzaingoak	Xabi Blanch/Garikoitz Tapia

Zizurkilen, tokiko talde, elkarte eta eragileak berriz gogotsu hartu dute parte. Hauek izan dira parte hartu duten zeharkako eragileak:

ORDEZKARITZA ESPAZIOA		IZEN ABIZENAK
1	Zubimuxu ikastola	Nerea Urdanpileta
2	Otaño Ikastetxea	Ane Juarez/ Zudaire Belen
3	Danenak kirol elkarte	Josu Sarasola
4	Atxulondo Taberna	Xabi Tello
5	Pasus Taberna	Vitor Gómez

Burututako lan saioak

Aurrera eramandako prozesu parte hartzaile honetan, **guztira lau saio burutu dira, bakoitzean** protokoloak barne-hartzen duen **gai edo atal jakin bat landu** delarik. Saio bakoitzean gai edo atal bat landu da, eta ondoren, saion landutakoa jasotzen duen kronika txiki bat bidali zaie partaideei. Beharra egon denetan saioan landutako puntu garrantzitsu eta erabakiorrak (Protokoloaren dokumentuan jasoko zirenak) berariaz landu dituzte Farapi Koop.eko kideek, hitz egindakoari forma eman eta taldearen berrespen espresua jasotzeko.

Hurrengo saio bakoitzaren hasieran, aurreko saioan landutakoen eta bidalitako dokumentuen errepaso txiki bat egin da, eragile guztiak ados daudela konfirmatzeko edo ekarpenik balego, hauek txertatzeko.

Protokoloaren diseinu faseko 1. SAIOA
Prozesuan kokatzeko azalpen batzuk eman ziren: zein unetan zegoen prozesua eta zeintzuk ziren abiatzeaz zegoen fase berriko urratsak. Ondoren, ezagutza faseko emaitzen errepasoa egin zen, Zizurkilek indarkeria matxistaren aurka dauzkan indargune eta erronkak landuz. Azkenik, protokoloaren printzipio gidarien lanketa egin zen eta terminologiaren inguruko hausnarketa eta adostasunak.
Protokoloaren diseinu faseko 2. SAIOA
Indarkeria matxistaren aurrean espazio honetan parte hartzen duten eragile bakoitzaren lekua landu genuen, bakoitzaren mugak eta aukerak identifikatuz. Ostean indarkeria matxista pairatzen dutenen arreta eta esku hartzean zuzenean parte hartzen duten eragileen prozedurak aztertu eta ezagutzen hasi ginen. Saio honetan soilik Gizarte zerbitzuak, Osasuna eta arlo poliziala landu genituen.
Protokoloaren diseinu faseko 3. SAIOA

Zuzeneko eragileen prozedurak ezagutzen jarraitu genuen, oraingoan osasungintza arloa landuz.

Protokoloaren jarraipen eta koordinaziorako egituren definizioa egin zen.

Protokoloaren diseinu faseko 4. SAIOA

Indarkeria matxistaren aurrean eman beharreko erantzun publikoa landu da. Gipuzkoako Foru Aldundiak 2018an argitaratutako “Gipuzkoako udalerrietan indarkeria matxista kasuen aurrean erantzun publiko instituzionala emateko Protokoloa” dokumentua hartu zen oinarri erantzun instituzionala diseinatzeko. Hortik abiatuta, Zizurkilera egokitzen den herri erantzun publikoaren lanketa egin zen.

3

Indarkeria
matxistari
dagokion
testuinguru
normatibo eta
teorikoa

Erreferentziazko marko normatiboa

EAE mailan Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioa¹, erakunde bakoitzaren jarduna zehazten duena eta lurraldeko bestelako administrazio publikoetatik burutuko denaren markoa ezartzen duena.

Indarkeriari aurre egiteko erakundeen koordinazioaz, 1/2004 Lege Organikora bueltatuz, Legearen 32. artikuluan, elkarlanean aritzeko planak zehazten dira eta protokoloak eratzea lehen lerroko jarduna dela zehazten du: *“protokoloek ezarriko dituzte esku hartzen duten administrazio eta zerbitzu guztiek batera eta oso-osoan jardutea ziurtatzeko prozedurak”* eta gainera, *“prebentzioaren, detekzio goiztiarraren eta etengabeko esku-hartzearen inguruko jarduerak bultzatu behar dituztela”* aipatzen du.

Europa mailan, Istanbulen 2011an Europako Kontseiluak sinatu zuen hitzarmena emakumeen aurkako indarkeriaren eta etxeko indarkeriaren aurkako borrokan Europako lehenengo tresna juridiko loteslea da. Hitzarmen honek, besteak beste, “erakundeen arteko koordinazioa bultzatu tokiko protokoloak martxan jarriz, arreta zerbitzuak hobetzeko eta indarkeriari matxistari aurre egiten dieten emakumeen birbiktimizazioa ekiditeko neurriak” jasotzen ditu.

EAEri dagokionez, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 61. artikuluan, erakundeen arteko koordinazioari erreferentzia zuzena egiten dio, erakunde arteko lankidetzak akordioak sustatu eta erantzun koordinatu eta eraginkorra emateko baliabideak jartzeko konpromisoa hartuz. Era berean, foru- eta toki-administrazioek beraien eremuko errealitatera egokitutako lankidetzak akordioak eta protokoloen garapena bultzatu behar dutela adierazten du.

¹http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia_coordinacion/eu_def/adjuntos/2.acuerdo.interinstitucional.eus.pdf

Erreferentziazko oinarri teoriko eta terminologikoa

Esparru kontzeptual eta terminologikoa etengabe zabaltzen ari den esparrua izanik, kontzeptu eta termino berriak sortu eta egokitzen doaz. Kontzeptu eta termino berrien sorreraren bitartez indarkeria mota ezberdinen inguruan hausnartu eta ikusaraztearen beharra dago, baita erakunde publikoen jarduna egokitu eta zabaltzekoa ere.

Dena den, erakunde publikoek euren artean daramatzaten erritmo ezberdinek eta testuinguru normatiboak baldintzatu egiten du jarduna, denak ez baitira esparru berdinetara egokitzen.

Gainera, nahiz eta gizartearen irakurketa feminista batetik indarkeria genero sisteman oinarritutako indarkeria, indarkeria matxista deritzona, esparru zabalago bati erreferentzia egin, ibilbide bakoitza, eta kaltetutako emakumeek eskuragarri edukiko dituzten zerbitzuak eta baliabideak zehazten dituen errealitate juridikoak ezinezkoa egiten du kasu horiei guztiei erantzun bateratu bat emango dien jardun-protokolo bateratua lantzea.

Genero indarkeria:

- **Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak**, erasotutako emakumeak erasotzailearekin duen edo izan duen harreman motan jartzen du begirada. Hortaz, kasu hauek dira genero indarkeria moduan ulertzen dituenak:

“...emakumeen aurka ezkontide diren edo izan diren gizonak, edo horiekin antzeko maitasun-harremanak dituztenek edo izan dituztenek, nahiz eta elkarbizitzarik ez izan.”

Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioak, Lege Organiko honetan du oinarria.

Emakumeen aurkako indarkeria:

- **Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak** erabilitako kontzeptua da hau. Hortaz,

“sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke”.

Dokumentu honetan bertan emakumeen kontrako indarkeria gertatzen den lau esparru bereizten dira: 1) familia edo etxe unitatea, 2) erkidego orokorrean gertatzen dena, 3) estatuak gauzatu edo toleratzen duena, eta 4) gatazka armatuen egoeran gertatzen diren emakumeen giza eskubideen urraketak. Diagnostiko eta protokolo hau lehendabiziko azpi-atalean zentratzen da, “egungo edo aurreko familia edota afektibitate harreman oinarrien gainean” gertatzen dena. Indarkeria eredu honen barruan hurrengo lau indarkeria motak bereizten ditu Emakundek:

- ✓ **Fisikoa:** Biktimaren segurtasun fisikoa arriskuan jarri edo kaltetu eta istripu ez den egintza da. Besteak beste, halako jokabideak barne hartzen ditu: bultzatzea, jotzea, erretzea, edota biktima erasotzeko armak edo beste tresnak erabiltzea.
- ✓ **Psikologikoa edo emozionala:** Biktimaren osotasun psikikoa arriskuan jarri edo kaltetu eta istripu ez den egintza da. Besteak beste, honako hauek barne hartzen ditu: mehatxua, laidoa, iraina, gutxiespena, arbuio afektiboa eta, elkarrekintza blokeatzea, isolatze eta inkomunikazioa eta bar.
- ✓ **Sexuala:** Biktimaren baimenik gabe egiten diren sexu-praktikei deritze.
- ✓ **Ekonomikoa:** Diruari buruzko informazioa edukitzeko eskubidea edo dirua bera erabiltzekoa ukatu egiten zaizkio tratatu txarrak jasaten dituen pertsonari. Honako hauek hartuko lituzke barne: xantaia ekonomikoa, diru-sarrerak eta bar kontrolatzea, elkarren arteko ondasunetan emakumeei esku hartzen galarazi edo mugak jartzea, emakumeari lan egiten ez uztea edo janari-pentsioa ez ordaintzea.

Indarkeria matxista:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak **2/2015 Foru Arauak, martxoaren 9koak**, emakumeen eta gizonen berdintasunerakoak egindako indarkeria matxistaren birdefinizioa kontutan hartuta.

Hortaz, hona hemen kontutan hartuko den **indarkeria matxistaren** definizioa:

“Indarkeria matxista izango dira sexu/genero/sexualitate sistemaren heteronormaltasunari aurre egiten dioten gorputzen aurkako kontrol, eraso, ukapen eta inposaketa zuzen, egiturazko eta sinbolikoak zein, sistema hori transgreditu gabe ere, sisteman bertan inplizituki dauden botere harremanak jasaten dituzten gorputzen kontra, hots, emakumeen kontra zuzenduak. Kasu bietan, indarkeria matxista horren barnean indarkeria sexista eta indarkeria matxistaren beste forma batzuk sartzen dira, hala nola transfobia, lesbofobia eta homofobia”.

Hortaz, indarkeria matxista terminoa erabiliko da, termino orokor gisa, sorburuan sozializazio bikoia eta genero desberdintasuna dituen indarkeriari buruz ari denean. Termino horren barnean bi indarkeria mota sartzen dira:

- **Indarkeria sexista**, hau da, emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten dutena, eta emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasuna betikotzea duena helburu.
- **Genero rol sozial bikoei eta horiei lotutako sexualitateari egokitzen ez zaizkien pertsonen jasaten dituzten beste indarkeria batzuk**. Homofobia, lesbofobia eta transfobia izango genituzke.
- **Familia barruko sexu indarkeria**: termino hau erabiliko da familiako kideek (aita, anaia, aitona, osabak, etab.) neska, nerabe eta adin guztietako emakumeei jasanarazten dizkieten kontrol, eraso, arbuio, bazterkeria... mota guztiak adierazteko.

Biktima kategoriari buruzko hausnarketa:

- Indarkeriari aurre egiten dioten emakumeak erresistentziaz eta errebelldiaz gabetzen dituela adierazteaz gain, ohartarazi egiten da biktimaren **estereotipoa sortzeko arriskuaz**.
- Hala eta guztiz ere, giza eskubideen ikuspegitik, biktimaren kontzeptuaz nabarmendu egiten da emakumeak pairatzen duen kaltea **emakumearen erantzukizunpean ez dauden ekintza** edo ez-egiteek sortzen dutela.

Protokolo honek **INDARKERIA MATXISTA**² terminoa erabiliko du, azken definizio honek (2/2015 Foru Arauak) definitzen duen moduan, *“emakumeek emakume izate hutsagatik jasaten duten indarkeria bezala ulertua izango da, emakumeen gaineko kontrola eta nagusitasun betikotzea duena helburu”*.

²<http://berdintasuna.gipuzkoa.net/documents/73267/73649/Terminolog%C3%ADa-+Indarkeria+matxistaren+arloko+kontzeptuak/e3735ecc-9da2-413f-a476-f930a8bfc6f1>

4

Hartutako konpromisoak

Zizurkilen indarkeria matxista pairatzen duten emakumeen arreta integral eta egokia bermatuko duen koordinazio protokolo hau sinatu dutenek, honako konpromiso hauek hartu dituzte:

1. Akordioa sinatu duten talde, elkarte, eragile eta erakundeen jarduera bideratuko da, protokolo honetako aurreko atalean jasotako kontutuan hartzeko gakoak jarraiki.
2. Protokolo honen helburua Zizurkilen indarkeria matxistari aurre egin nahi dioten emakumeen prozesuan, zuzenean ala zeharka, laguntzen duten talde, elkarte, eragile eta erakundeen arteko koordinazioa hobetzea da, horrela, emakume horiei babes eta arreta osoa bermatzeko arlo ezberdinetan: arlo sozialean, hezkuntza arloan, osasun arloan, polizialean eta judizialean.
3. Akordioa sinatzen duten talde, elkarte, eragile eta erakundeek beren jarduera akordio honen barruan sartu den jarduera protokoloari egokitzeko konpromisoa hartzen dute indarkeria matxista eman/ematen den egoeretatik etorritako arau-hauste penalak gertatzen diren kasuetan; hori guztia, dagozkien eskumenak eta batez ere epaileen independentzia ahalik eta gehien errespetatuz.
4. Protokoloak jasotzen dituen prozedurak eta jarraibideak modu eraginkorrean aplikatzen direla bermatzeko honako konpromisoak hartuko dituzte, bakoitzak bere eskumenen arloan:
 - a. Protokoloaren edukiak indarkeriari aurre egiten ari diren emakumeen arretan parte hartzen duten arlo ezberdinetako profesionalen artean zabaltzeko konpromisoa: protokoloa sinatu duten erakunde eta talde guztietako partaide guztiak.
 - b. Trebakuntza plan iraunkorrak prestatu eta abian jartzea, erreferentzia eginez jarduera protokoloan zehazten diren jarraibideei.
 - c. Arreta egokia eskaintzeko beharrezkoak diren baliabide material eta teknikoak bideratzea.
5. Protokoloari jarraipena emango dioten koordinazio-egiturak sortzea eta mantentzea, eta horretarako beharrezkoak diren baliabide pertsonal eta ekonomikoak eskaintzea. Bide batez, Koordinaziorako espazio hauen lidergoa/dinamizazio lana Zizurkilgo Berdintasun sailaren alde politikoari esleitzen zaio Gizarte Zerbitzuetako langilearen laguntzarekin.

6. Erakunde/talde/elkarte bakoitzean erreferentzia izango den pertsona bat izendatzea, protokoloan adostutako koordinazio-zereginen jarraipena egin dezan. Halaber, titular hori ez dagoen aldietan zeregin horietaz arduratuko den ordezkoa ere izendatuko da. Leku-aldaketak edo lan-uzteak direla medio, erreferentziazko pertsona berriari protokolo honekiko dituen arduren berri emateko pausuak emango dira.
7. Udalerrian indarkeria matxista eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeen erregistroa ahalik eta zehatzena izatea. Datu horien analisiaren helburua honakoa izango da: biztanle mota, horren beharrianak eta laguntza eskatzeko prozesuan topa ditzakeen zailtasunak ahalik eta hoberen ezagutzea.
8. Atentzio berezia jarriko da Datuen Babeserako Legeak dioena errespetatzeari, emakumearen inguruko datuez aritzean bereziki, lantaldetik kanpora emakumearen inguruko informazioak zabaltzeko ez dadin.

Protokoloaren diseinuan partaide izan diren eragileek erabaki dute protokolo hau sinatzea,

- Indarkeria matxista giza eskubide eta segurtasunaren urraketa den heinean, horri aurre egiteko mekanismo moduan.
- Udalerrian indarkeria jasaten duten emakumeei harrera hobea emateko mekanismoen beharriari erantzuteko.

5

Eragilekako prozeduren azalpena

Txosten honen egituraketan, partaidetzazko prozesuan egin den moduan, indarkeriari aurre egiteko prozesuan partaide diren eragileak 2 multzo handitan banatu dira: zuzenean parte hartzen dutenak eta zeharkakoak.

Lehenengo prozedura, zuzenean parte hartzen duten eragileena alegia, Etxeko tratu txarrak eta sexu indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioak jasotzen duen prozeduretan oinarrituta dago.

Bigarrenena, aldiz, protokolo hau diseinatzeko partaidetzazko saioen bitartez zehaztutako ibilbideetan oinarritua dago.

Honakoak dira multzo bakoitzak bere barne jasotzen dituzten eragileak:



Atal honen lehenengo zatian zuzeneko eragileen jardunak jasotzen dira. Eta jarraian, zeharkako eragileenak.

Zuzeneko eragileak

Esparru POLIZIALaren jarduna

Hernanin kokatua dagoen Hernaniko ertzain-etxetik kudeatzen da zerbitzua. **Erakunde arteko II. akordioak jasotzen duen prozeduran oinarritua** izango da.

Hernaniko ertzain-etxea

Genero indarkeria eta sexu-erasoei erantzuna ematen dio.

24 orduko zerbitzua ematen du

lkerkuntza arloak bideratzen ditu atestatuak, salaketak jasotzen ditu eta babes-aginduak eskatzen ditu, epaiketa azkarrerako zitazioak egiten ditu, hala badagokio.

Era berean, laguntza-baliabideei buruzko aholkuak ematen dituzte eta behar diren baliabideak aktibatzen dituzte, biktimaren onarpenarekin, hala nola, SFUS.

Arreta espezifikoa talde honek ematen badu ere, ertzain guztiek dute formakuntza euren barne-prozeduraren ingurukoa.

Nondik iristen dira kasuak?

Prozedurari dagokionean, 2 modu ezberdinetan iristen zaizkie kasuak:

- **Emakumea haiengana hurbiltzen denean** indarkeriari aurre egin nahian informazio eske edota salaketa jartzeko asmoz (telefono edo ertzain-etxean bertan). Edo **hirugarren pertsona batek salatzen duenean**.
- **Etxean edo kalean eman den eraso baten ondorioz** ertzainak esku-hartzen duenean. Bigarren hau da prozedura guztia azkarren aktibatzen duena.
- **Dagokion epaitegiaren ofizio judiziala jaso ondoren**
- **Epaitegitik jasotzeko lesioen parte (Osakidetza) edo babes-agindu berri bat.**

OHARRA:

Indarkeria zantzuak daudela ikusten bada, emakumeak salaketa jartzeari uko egin ezker, ertzainak behartuta daude gertatutakoaren berri epaileari ematera. Kasu hauetan, baita

emakumeak salaketa jartzen duenean ere, litekeena da hurrengo egunean bertan epaileak epaiketa azkar batetara deitzea emakumea eta erasotzailea.

Epaiketa azkarraren ondorioz, epaileak emakumeak eskatutako urruneratze eskaera onartu dezake edo bertan behera utzi, horrek ez du esan nahi ondorengo epaiketa batean ezartzen direnik.

Emakumeak salaketa jartzeari uko egin badio, posible da epailearen aurrean gertatutakoa ukatu edo ez deklaratzeko. Kasuaren arabera, epaileak kasua artxibatu dezake edo dituen datuen arabera, lesioak, lekukoak... prozedurak aurrera jarraitzea.

Zer eskaintzen da?

Ertzain etxetik **eskaintzen diren zerbitzuak:**

- Urgentziazko kasuen arreta.
- Babes aginduen eskariak tramitatzea.
- Salaketa jasotzeko 24 orduko arreta-zerbitzua
- Arreta-zerbitzu pertsonalizatua
- Urgentzietarako sakelako telefonoa eskaintzea (bortxa)
- Babesteko neurri polizialak
- GLFZ (SFUS)
 - Eskubide buruzko informazioa egin ondoren eta salaketa jaso aurretik biktimari jakinaraziko zaio zerbitzu horren arreta jaso dezakeela eta zerbitzu hori zetan datzan adieraziko zaio:
 - Ertzain etxera edo eska dakieken lekura joatea
 - Lehen laguntza psikologikoa edo eustekoa
 - Kaltetutako pertsonen osasun zentroetara edo bulego judizialekara laguntzea
 - Biktimak zer baliabide jasotzeko eskubide duen jakinaraztea
 - Ondoren biktimak eska ditzakeen baliabideak baloratzea, hasieratik kudeatuz.
 - Zerbitzua onartu ezkerreko mobilizatu egingo da.

Zeintzuk dira Arloen eginkizunak?

Hiritarren Segurtasuna

- Urgentziazko laguntza biktimei
- Esku hartzeak erasotzailearekin
- Hasierako arrisku balorazioa
- Prebentziorako jarduerak
- Udaltzaingoari GI/EI gertaeren berri ematea

Ikerketa arloa

- Prebentzio eginbideak
- Baliabideei buruzko aholkularitza

Genero Indarkeria eta Etxeko Indarkeria Arloa GI/EI

- Arrisku maila eguneratzea
- Biktimak bere burua babesteko prestakuntza
- Biktimari dei aleatorioak egitea
- Biktimarekin eta erasotzailearekin elkarriketak
- Gizarte Zerbitzuekin koordinatzea eta informazioa partekatzea
- Prebentzioa planifikatzea

****Ertzainak honela sailkatzen ditu kasuak.** GI: Genero indarkeria, erasotzailea gizonetzkoa denean eta biktima emakumezkoa eta bikotekide direnean edo bikotekide izandakoak direnean. EI: Etxeko Indarkeria, indarkeria familiako beste kide batzuen artean denean.

Inteligentzia arloa

- Udaltzaingoarekin koordinatzea eta biktimari, erasotzaileari eta epaitegiak ezarritako babes neurriei buruzko informazioa partekatzea.

Zeintzuk dira prozedurak?

GI/EI kasuaren berri izatea eta biktimarentzako arreta

- Berehalako arreta kasu bati buruzko deia dagoenean
- Ikerketa eta atestatua egin
- GI/EI espedienteak
- Biktima babestea
- Biktimari laguntza

- Esku hartzeak erasotzailearekin
- Kalitate prozesua kontrolatzeko sistema
- Bezeroaren gogobetetzea

Biktimak sexu erasoa izan berri badu

- Osasun laguntza behar badu: biktima artatu dun ertzainak biktima ospitalera eramateko ambulanzia eskatu behar ote duen edo ertzainek, uniformerik gabe, eramango duten balioztatuko du.
- Osasun laguntzarik behar ez badu: ertzainek, uniformerik gabe, biktima ertzain etxera eramango dute.

Zerbitzu sozialek eman ditzaketen laguntzak biktimari eskaintzea

- Biktima onartzen badu, informazioa zerbitzu sozialetara bidaliko da.
- Biktimak onartu ala ez, ertzaintzak segimendua egingo du, biktimari laguntzeko zerbitzuei buruzko informazioa emanaz.
- Biktimak ez badu eskainitakoa onartzen baina adingabeak badaude, zerbitzu sozialei jakinaraziko zaie, indarkeria bizi dutela eta kalte presuntzioaren printzipioaren arabera beraien babesa bermatzeko.

Koordinazioa inplikaturako zerbitzuekin

Biktimak bideratzea eta arreta hobeagoa emateko zerbitzuen arteko koordinazioa onartu badu, zerbitzu sozialei horren berri emango zaie, eta inplikaturako zerbitzuek kasuaren segimendua egiteko mekanismoak ezarriko dituzte.

Jarraipena

Eginbideek jarduketa protokoloaren arabera jarraituko dute.

Erregistratzeko eta informazioa partekatzeko prozedurak

- Datuak dagokion aplikagarri informatikoan jaso
- Datuak lagatzeko baimena eman duten erabiltzaileen informazioa zerbitzu sozialetara bideratzen da adostutako formatuan.
- Bideratzeko eta jarduketa koordinatua izateko baimenik eman ez duten kasu kopuruaren berri ematen da.

Arriskuaren balorazioa

Arriskua etengabe baloratzen da, baina gutxienez une hauetan egiten da:

- GI/EI gertaera baten ondoren
- Salaketa baten ondoren
- Atestatu bat bukatzen denean
- Auzitegiko epaia jaso ondoren
- Biktimekin aldizka izandako elkarriketaren ondoren

Gaur egun, Ertzainak lau arrisku maila hartzen ditu kontuan:

- **Oinarrizkoa:** uste denean probabilitate gutxi dagoela berriro gertaera bortitzak egoteko. Kasu horietan babes neurri hauek hartzen dira: telefono-deien bidezko egiaztapen aleatorioak, biktimak bere burua babesteko prestakuntza, bortxa telefonoa.
- **Ertaina:** uste denean aukera dagoela berriro gertaera bortitzak izateko. Horrelakoetan, lehen aipatutako neurriez gain, biktima epaitegira eramaten da.
- **Altua:** uste denean aukera handia dagoela berriro gertaera bortitzak izateko. Kasu horietan, aipatutako neurriez gain, honakoak ezartzen dira: kontrazaintzarako neurriak, eguneroko jarduera prebentiboak, noizean behingo operatibak, erasotzaileari segimendua egitea, eskumuturreko elektronikoa.
- **Berezia:** uste denean aukera oso handia dagoela berriro gertaera bortitzak izateko. Kasu horietan, etengabeko zaintza egiten da, aipatutako neurri guztiez gain.

Udaltzaingoaren kasuan:

Gai honetan eskumena ertzaintzarena da eta udaltzaingoaren papera laguntzailearena da. Delituaren jabetza Ertzaintzarena da. Horrek esan nahi du, udaltzaingoak zenbait funtzio zehaztuta baditu ere, “laguntzaile” moduan aritzen dela.

a. Lesio fisiko edota psikiko larriak daudenerako prozedura

Larrialdiari erantzuna ematea da lehentasuna: eraso baten berri izan ezker, emakumeari laguntza eta babesa eman beharko zaio, ospitalera bideratuz. Lekualdaketa udaltzaingoak egin behar izan ezker, bereizgarri gabeko auto ofizialean egitea komenigarria da (ahal den heinean) eta kaleko janzkerarekin.

Ertzainak iristen diren momentuan, kasuaren jarraipenaz arduratuko dira gertatutakoaren berri eman ondoren.

b. Lesio fisiko edo psikiko larririk EZ dagoenerako prozedura

Momentuan emakumeari laguntza eta babesa eman ondoren, Hernaniko ertzain-etxera bideratuko da emakumea.

Ikusi lehen arreta horretan kontutan hartzekoak [klikatu hemen]

Behin prozedura juridiko eta polizialaren lehen urratsak emanda, urruntze agindurik balego, Ertzainei lagunduko diete agindu hauen jarraipenarekin. Horretarako, Hernaniko ertzain-etxetik erasotzailearen eta erasotuaaren inguruko informazio fitxa helaraziko zaie.


Aldi berean, indarkeriari aurre egiteko beste programa eta zerbitzuen inguruko informazioa emango diote emakumeari, beharrezkoa balitz, Udaleko Gizarte Zerbitzuetara lagunduko zaiolarik.

Ertzaintzaren eta udaltzaingoaren arteko koordinazioa

Hauek dira bi erakunde hauen arteko koordinazioa:

- Gorputz polizialen arteko kooperazio-politikak.
- Biktimei emandako arreta, izan ere, bi gorputz polizial horien jarduketak arretan eta babesean oinarritzen dira.
- Informazioa aldian-aldina eta beharrezkoa denean elkartrukatzea.
- GI/EI gertaerekin zerikusia duten jarduketan berri eman Udaltzaingoari.
- Beharrezkoa den babesa koordinatzea, arrisku balorazioaren arabera.

ARLO POLIZIALA



OSASUN esparruaren jarduna

Osakidetzak diseinatutako “Protocolo sanitario ante el maltrato en el ámbito doméstico y la violencia sexual contra las mujeres” protokoloan oinarrituta eta Erakunde arteko II. akordioarekin bat datorrena.

Zizurkil-Villabona osasun zentroa: familia
medikuntza, pediatria, erizaintza eta emaginaren
zerbitzuak eskaintzen ditu
Astelehenetik ostiralera, 8'00tatik 15'00tara.

Tolosako ESI: larrialdi arinetarako
24 ordu

Asunzion klinika: espezialidadeak eta osasun
larrialdiak
24 ordu

Donostiako ospitaleko ginekologiako zerbitzua:
Sexu eraso edo gehiegikeria kasuak
24 ordu

Zer egiten da iristen direnean? Nora bideratzen da?

Lesio fisiko edota psikiko larriak baditu:

Lesio fisiko edota psikiko larriak dituen emakume bati mediku arreta ematea Asunzion klinikari dagokio. Beraz, beste zentroetako batera iritsi ezker, klinikara bideratuko dira emakumeak beharrezko atentzioa jaso dezaten.

Sexu erasoen edo gehiegikerien kasuan, eraso eman denetik 72 ordu baino gutxiago eman badira, Donostiako ospitaleko ginekologia urgentzietarako zerbitzura bideratuko dira emakumeak, baldin eta horrek emakumearen osasunean ondorio larriak ez baditu. Zerbitzu horretara hurbilduko da Tolosako epaitegiko medikua, frogak ziurtatu eta laginak hartzeko, bertako medikuarekin batera emakumeari osasun laguntza ematera.

Jarraian, auzitegiko medikuak lesioen parte bate, emakumeari irakurri eta 3 kopia banatuko ditu: erasotuari, Tolosako epaitegiari eta Zizurkilgo osasun zentroari.

Edozein kasutan, sexu erasoa eman edo ez, osasun beharrak atenditu ondoren, atentzioaz arduratu den medikuak jarraipenerako informe medikua sortuko du. Informe hau, dagokion osasun zentrori bidaliko du, historia klinikoan txertatu eta ezarritako tratamenduaren jarraipen egokia egiteko. Informe hau, aldi berean, Zizurkilgo gizarte zerbitzuetara bidaliko da.

Lesio fisiko edota psikikorik EZ badu:

Osasun zentroko langileren batek paziente batek indarkeria pairatzen ari denaren susmoa izan ezker, lehenengo urratsa, susmoa baieztatzea edo baztertzea izango da. Horretarako, bere eremuko beste profesionalekin, edota herri mailan indarkeriari aurre egiteko prozesuko partaide diren bestelako eragileekin harremanetan jarriko da. Oinarrizkoa izango da:

- Halako kasuetan eman daitezkeen zantzu eta sintoma jakinen ezagutza izatea.
- Informazioaren kontrastea burutzea, barne nahiz kanpo mailako lan-taldeekin.
- Elkarriketa kliniko egitea.

Indarkeria pairatzen duela baieztatzen bada, eta emakumeak hala nahi badu, lesio posibleak detektatu eta egoera emozionala aztertzeke esplorazioa egingo da. Aldi berean, emakumeari honako informazio hau eskainiko zaio:

- Emango diren urratsen ingurukoa.
- Salaketa jartzeko duen eskubidearen ingurukoa.
- Artatu duenak salaketa jartzeko duen betebeharraren ingurukoa.
- Gizarte zerbitzu eta biktimei laguntzeko zerbitzuen inguruko informazioa emango zaio emakumeari.


Emakumearen edo bere gain egon litezkeen adin txikiko edo menpeko pertsonen segurtasuna bermatu beharko da uneoro. Beraz, arriskua somatuz gero, SOS Deiak edo Hernaniko ertzain-etxera deituko da laguntza eske.

Ezin bada baieztatu emakumeak indarkeria pairatu duela:

- Izandako susmoaren erregistroa jasoko da historia klinikoan.

- Osasun arreta, arreta psikologikoa eta dituen arazo sozialen inguruko informazioa eskainiko zaio behar balitz.
- Jarraipena egiteko bisitak eskainiko zaizkio emakumeari, zuzenean zertarako diren zehaztu gabe.

OSASUN ARLOKO JARDUNA



Tokiko GIZARTE ZERBITZUen jarduna

Oinarrizko gizarte zerbitzuak **gizarte arazoez erakunde publikoekin harremanetan jartzeko** duten lehenengo sarbidea dira. Zerbitzu honetatik beste zerbitzuetarako bideratzea egin ohi da.

Erakunde arteko II. akordioak diotenari jarraiki, Zizurkilgo oinarrizko **gizarte zerbitzuen** jarduna landu da.

Zizurkilgo Gizarte Zerbitzuak

(Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatea):

943693930

Astelehenetik ostiralera 09:00-14:00

Ordutegitik kanpo GLFZ-SFUS (943224411) edo 112

(egunero 24 ordu eta urteko 365 egunetan)

“Sarbideak”, Zizurkilen emakumeek indarkeria matxista egoeratik ateratzeko helburuarekin esku hartze prozesu bat hasteko dauzkaten bideak dira. Hauetako edozein sarbidek emakumeei gainerako zerbitzuekin lotzea eta harremanetan jarri ahal izatea ahalbideratu beharko luke. Emakumea zerbitzu batera bideratu behar bada idatzizko baimena eskatuko zaio, datuak babesteari buruzko araudian oinarrituz. Bertan, lehenengo arreta egiten duen zerbitzuari emakumearen informazioa beste zerbitzuei bideratu eta partekatze baimentzen zaio, beti ere arreta hobetzeko asmoz.

Emakumeak baimena ematen badu, beste zerbitzuekin harremanetan jarri, informazioa jaso eta esku hartzea koordinatuko du.

Emakumeak ez badu baimenik ematen, zerbitzuak arreta ematen jarraituko du, nahiz eta berriro ere aholkatuko dion emakumeari komeni dela beste zerbitzuen laguntza ere izatea, baliabide gehiago eskuratu eta emakumeari bizi duen egoeratik ateratzen laguntzeko.

Sarbideak ondorengoak dira:

1. UDAL ZERBITZUAK ETA SAILAK

1.1 OINARRIZKO GIZARTE ZERBITZUAK

1.2 UDALTZAINGOA

1.3 BERDINTASUN ZERBITZUA-SAILA

2. ESKUALDEKO ZERBITZUAK

2.1. TOLOSALDEKO ANIZTASUN SAILA

3. FORU ZERBITZUAK

3.1. GIZARTE LARRIALDIEN FORU ZERBITZUA

4. ZERBITZU AUTONOMIKOAK

4.1 ERTZAINZA. HERNANIKO KOMISARIA

4.2 VILLABONAKO OSASUN ZENTROA

4.3 ASUNCION KLINIKA

4.4 DONOSTIAKO OSPITALEA

4.5 BIKTIMARI LAGUNTZEKO ZERBITZUA (BLZ)

4.6 SATEVI (Eusko Jaurlaritzaren 24 orduko telefono bidezko Arreta Zerbitzua)

5. **BESTE BATZUK** (Donostiko emakumeen etxea, emakume elkarteak, hezkuntza eragileak, Lanbide....)

Oinarrizko gizarte zerbitzuen jarduna

Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak Gizarte arazoei erakunde publikoekin harremanetan jartzeko duten lehenengo sarbidea dira. Zerbitzu honetatik beste zerbitzuetarako bideratzea egin ohi da. Indarkeriatik ateratzeko prozesuan zehar emakumeak behar izan dezakeen arreta ematen eta gainerako zerbitzu eta baliabideekin koordinatzen ahalegintzen da.

Oinarrizko gizarte zerbitzuek ematen duten arreta, bideratze eta koordinazio prozedura.

- 1) **Harrera:** Emakumea Gizarte zerbitzuetara iristen denean bere intimitatea bermatuko da eta behar den denbora eskainiko zaio kontatu beharrekoa etenik gabe eta arreta guztiarekin entzuteko.
- 2) **Egoeraren balorazioa:** indarkeria matxistaren egoeraren arabera edo arrisku mailaren arabera esku hartzeak.

A/ Larrialdiko egoera baldin bada, berehalako erantzuna eman behar zaio.

Larrialdi egoera gisa ulertuko dira behin kasuaren berri izanda berehalako erabaki bat hartu eta ahalik eta bizkorren ekintzak gauzatu behar direnean, emakumeak bere segurtasun pertsonala arriskuan egon daitekeela onartzen duelako edo honako kasuetan:

- Lesioen larritasunagatik edota eraso sexualagatik osasun asistentzia behar duenean.
- Begi bistako lesioak dauzkanean (berdin dio onartzen duen edo ez).
- Emakumeak berehala etxea utzi behar badu.
- Salaketa jarri edo jarri nahi badu.
- Bikote harremana bukatzeko nahia badu eta erabakiak emakumearen segurtasuna edo bizitza arriskuan jar dezakedanean.

Kasu batzuetan, kontutan izan behar dugu emakumeak urgentziako babes neurriak baztertu egin ditzakela (harrera etxea, salaketa), batetik, ez datorrelako bat arrisku balorazioarekin, eta bestetik, uste duelako egoerari aurre egin ahal diola. Beraz, horrelakoetan, emakumeari babesteko neurriak hartzeko informazioa emango zaio eta kasuaren jarraipena egingo da.

Bigarren mailako sarean ostatua edo berehalako harrera zerbitzua behar denean (Foru eskumenekoa), SFUSEk gizarte larrialdiko egoera guztiak artatuko ditu, urteko ordu eta egun guztietan (24h/365 egun).

Berehalako osasun asistentzia behar den kasuetan Asuncion Klinikako larrialdi zerbitzura bideratuko da eta beharrezkoa bada poliziari (Ertzaintza, udaltzaingoa) laguntza eskatuko zaio. Emakumeari lesioen parte eskatzeko esango zaio.

Sexu eraso edo gehiegikeria eman bada eta eraso eman denetik 72 ordu baino gutxiago pasa badira, Donostiako ospitaleko ginekologia urgentzietarako zerbitzura bideratuko da. Horretarako, SOS Deiak-era (112ra) deituko da, beharrezkoa balitz anbulantzia lekualdatu dezaten.

Emakumeari jakinaraziko zaio garrantzitsua dela ez garbitzea eta arropaz ez aldatzea, eta aho bidezko eraso izan bada, ezer ez jatea edota edatea, Tolosako epaitegiko medikuak laginak har ditzan.

Biktimaren edo bere kargura dauden pertsonen segurtasuna arriskuan dagoen kasuetan, Hernaniko komisariako Ertzaintzarekin edo udaltzaingoarekin harremanetan jarriko da Gizarte Zerbitzuetara bertaratu daitezen eta modu honetan bere segurtasuna bermatu dadin.

B/ Larrialdiko egoera ez bada, lehentasuna ematen zaio eta kasuaren balorazioa egiten da. Emakumearekin elkarlanean eta dituen beharren arabera baliabide ezberdinak (udal, foru eta autonomikoak) eskatzen dira.

Emakumeari salaketa jartzeko aukera jakinarazten zaio, baina guzti horrek suposatzen duena kontutan izanda prozesuari buruzko informazioa jasotzeko aholkularitza juridikoa ere eskaintzen zaio.

Kasu batzuetan emakumeak ez du salaketarik jarri nahi izaten edo ez du salaketa lehentasuneko neurria izatea nahi, erabakia hartzeko denbora behar duelako. Prozedura ulertarazteko

ahaleginak egin behar dira, eta horretarako behar adina elkarriketa egin daitezke, adieraziz ez duela zertan berehalako erabakirik hartu behar.

Informazioa, bideratzea eta koordinazioa.

Emakumeari emango zaion informazioa udal, foru eta autonomi erkidegoko baliabideei buruzkoa izango da. Ahalik eta informazio argiena emango zaio, itxaropen faltsurik ez sortzeko, baliabideak mugatuak baitira. Gizarte langilea aipatutako baliabide desberdinetara bideratzearen arduraduna izango da, emakumearen aurretiazko onarpenarekin.

Udal zerbitzuak:

- Informazioa, balorazioa eta orientazioa.
- Gizarte Larrialdietarako Laguntzak.

Foru zerbitzuak:


- Laguntza sozio-juridikoa.
- Laguntza psikologikoa.
- Berehalako/larrialdiko harrera zentroa.

Zerbitzu autonomikoak:

- Osasun zentroak.
- Ertzaintza.
- Lanbide.
- Etxebide.
- Eusko Jaurlaritzako ordainketa bakarra.
- Biktimarentzako arreta zerbitzua (SAV).

Nahiz eta batzuetan, gerta daitekeen, proposatutako zerbitzuren edo baliabideren bat ez onartzea, indarkeriari aurre egiteko planifikazioa emakumearekin batera diseinatu eta adostu ondoren kasuaren jarraipena egingo da; horretarako, behar den eragileekin koordinazio lanak egingo dira.

GIZARTE ZERBITZUEN JARDUNA



Udaleko BERDINTASUN SAILA/ZERBITZUA

Zizurkilgo Udalak, berdintasun teknikaririk ez duenez, kultur teknikariak kudeatzen ditu gaiarekin lotutako lanketak. Besteak beste, protokolo honen prozesuaren kudeaketa bertatik egin da eta, kultur teknikariaz gainera, berdintasun zinegotziak ere hartu du parte prozesuan.

Zizurkilgo Berdintasun Saila

943 691012 (sakatu 4. aukera)

Ernio Bidea 9 A, behea

Astelehenetik ostiralera 09:00-14:00

Hala, hauek dira sailari dagozkion zeregin eta funtzioak, gaiari lotutakoak:

- **PREBENTZIOA:** indarkeria kasuen inguruko kanpaina, formakuntza edo ahalduntze prozesuak bultzatu.
- **LAGUNTZA EMOZIONALA:** Kasuren bat zuzenean heltzekotan, lehen gauza, gure babesa ematea: entzun, bakarrik ez dagoela adierazi, laguntza eskaini eta gertuko norbait deitzea nahi duen galdetu.
- **INFORMAZIOA JASO DEZAKELA INFORMATZEA ETA BIDERATZEA:** Kasuren bat heltzen bada:
 - Indarkeria jaso duenaren beharrak entzun eta Gizarte Zerbitzuetara joateko gomendatuko dio (bertan informazio zabalagoa eta beste zerbitzuetara sarbidea izango duelako. Adib. SATEVI_biktimentzako laguntza zerbitzua 900 840 111). Erasotuak idatzizko baimena ematen badu, bere datuak zuzenean helaraziko zaizkio gizarte langileari.
 - Ez badu Gizarte Zerbitzuetara joan nahi eskura dauden edota beste informazio iturri batzuen inguruko informazioa emango zaio (SATEVI_biktimentzako laguntza zerbitzua 900 840 111, SFUS edo 112 telefonoa eman).
- **AKONPAINAMENDUA EDO JARRAIPENA:** Akonpainamenduaz Gizarte Zerbitzuak arduratuko dira. Hala ere, harreman/konfiantza berezia badugu Gizarte Zerbitzukoekin batera laguntzaile/zubi egin daiteke, baldin eta erasotuak honetarako idatzizko baimena ematen badu.

- **SALAKETA eta ERREPARAZIOA:**
 - Erantzuna koordinatzeko egiturak bideratuko dituen deialdi, ekimen eta bestelakoetan parte hartu.
- **ERANTZUNA KOORDINATZEKO EGITURARI BABESA:** Kasuen kudeaketa zuzena egiten ari diren batzordekideei gure babesa eta laguntza eman.

Udaleko BESTE TEKNIKARI edo BATZORDEKIDEAK

Protokoloaren diseinu fasean udaleko eta mankomunitateko beste langile eta teknikari batzuk parte hartu dute: Aniztasuneko teknikaria eta harrerako langilea.

Oso positiboa da hauen parte hartzea zeharkakotasunaren (mainstreaming) bidean. Izan ere, arlo ezberdinetan indarkeria matxistaren gaia presente izatea eta bakoitzak bere esparrutik eragin ahal izatea oso estrategikoa da.

Hala, hauek dira batzordekide hauei dagozkien zeregin eta funtzioak:

- **PREBENTZIOA:** Bakoitzari dagozkien alorretan eman daitezkeen indarkeria kasuen inguruko kanpaina, formakuntza edo ahalduntze prozesuak bultzatu.
- **LAGUNTZA EMOZIONALA:** Kasuren bat zuzenean haiei heltzen bazaie, herritar gisa edo bakoitzaren alorretan gertatu delako:
 - Lehen gauza gure babesa ematea: entzun, bakarrik ez dagoela adierazi, laguntza eskaini eta gertuko norbait deitzea nahi duen galdetu.
- **INFORMAZIOA JASO DEZAKELA INFORMATZEA ETA BIDERATZEA:** Kasuren bat heltzen bazaie herritar gisa edo bakoitzaren alorretan gertatu delako:
 - Indarkeria jaso duenaren beharrak entzun eta Gizarte Zerbitzuetara joateko gomendatuko diogu (bertan informazio zabalagoa eta beste zerbitzuetara sarbidea izango duelako. Adib. SATEVI_biktimentzako laguntza zerbitzua 900 840 111).
 - Ez badu Gizarte Zerbitzuetara joan nahi guk eskura daukagun edota beste informazio iturri batzuen inguruko informazioa emango diogu (SATEVI_biktimentzako laguntza zerbitzua 900 840 111, SFUS edo 112 telefonoa eman).
- **AKONPAINAMENDUA EDO JARRAIPENA:** Akonpainamenduaz Gizarte Zerbitzuak arduratuko dira. Hala ere, erasotua gure lan eremukoa izateagatik harreman/konfiantza berezia badugu Gizarte Zerbitzukoekin batera laguntzaile/zubi egin dezakegu.
- **SALAKETA eta ERREPARAZIOA:**
 - Erantzuna koordinatzeko egiturak bideratuko dituen deialdi, ekimen eta bestelakoetan parte hartu.
- **ERANTZUNA KOORDINATZEKO EGITURARI BABESA:** Kasuen kudeaketa zuzena egiten ari diren batzordekideei gure babesa eta laguntza eman.

UDAL POLITIKARIAK

Protokoloaren diseinu prozesuan honako udal politikarik parte hartu dute: Alkatea eta Berdintasuna eta Ongizate saileko zinegotziak.

Politikari hauen parte hartzea oso garrantzitsua da, haien ardurapeko sailek indarkeria matxistaren gaiarekin zuzenean lan egiten dutelako. Baita, udal mailan gai honekiko konpromisu politiko sendo eta bateratu baten adierazle delako.

Hurrengoak dira udal politikariak Indarkeria matxistaren aurrean dauzkaten zeregin eta funtzioak:

- **PREBENTZIOA:** Gai honetan Berdintasun sailak lidergoa izango badu ere sailen arteko elkarlana egongo da udaletik prebentzio lanetarako:
 - Urte osoan zehar, eta bereziki eraso gehiago eman daitezkeela uste den momentuetan (jaiak, konfinamenduak...), prebentzio kanpainak egin.
 - Indarkeria matxistaren aurkako sentsibilizazio kanpainak egitea.
 - Indarkeria matxistaren aurkako formakuntza prestatu eta partaidetza bultzatzea, udal barrura (politikari eta teknikariei) nahiz kanpora (bestelako eragile eta herritarrei) bideratuta.
 - Emakumeentzako ahalduntze prozesuak bultzatzea.
- **LAGUNTZA EMOZIONALA:** Kasuren bat heltzen bada (herritar gisa edo politikari gisa):
 - Lehen gauza gure babesa ematea: entzun, bakarrik ez dagoela adierazi, laguntza eskaini eta gertuko norbait deitzea nahi duen galdetu.. Laguntza eskaintza hau prozesu guztian zehar mantendu.
 - Protokolo jarraipen batzordea kasuren bat kudeatzen ari badira, politikari gisa biktimari gure babesa eskaini (ez dugu zertan jakin behar zein den)
- **INFORMAZIOA EMAN ETA BIDERATZEA:** Kasuren bat heltzen bada (herritar gisa edo politikari gisa):
 - Indarkeria jaso duenaren beharrak entzun eta Gizarte Zerbitzuetara joatea gomendatuko diogu (bertan informazio zabalagoa eta beste zerbitzuetara sarbidea izango duelako. Adib. SATEVI_biktimentzako laguntza zerbitzua 900 840 111).
 - Ez badu Gizarte Zerbitzuetara joan nahi guk eskura daukagun edota beste informazio iturri batzuen inguruko informazioa emango diogu (SATEVI_biktimentzako laguntza zerbitzua 900 840 111, SFUS edo 112 telefonoa eman)
- **AKONPAINAMENDUA:** Politikari moduan akonpainamendua egitea karguaren ardura propioa ez bada ere, emakumeak izan dezakeen behar horri jarraipena egitea, eta behar

izango balitz, beste eragile batzuk horren bueltan aktibatzeke bitartekaritza lanak egitea garrantzitsua da.

- **ERANTZUN PUBLIKOA** (udal barruko lidergoa Berdintasun sailak du): Protokolo honetan jasota dagoenari jarraikiz, indarkeria pairatu duenak nahiko balu, erantzun publikoaren prozedura aktibatuko litzateke (protokolo honetan jasotzen da kasuen arabera eman beharreko pausuak eta ekintzak).
- **ERREPARAZIOA** (lidergoa Berdintasun sailak): Udal bezala, indarkeriari aurre egin dioten emakumeen erreparazio prozesuaren inguruan hausnartu eta, emakumeak oniritzia emanaz gero, ekintza zehatzak garatu.
 - Udal moduan, akusazio partikular gisa ere salaketa jartzeko aukera baloratu eta emakumeari ongi iruditzen bazaio, martxan jartzea.
- **ERANTZUNA KOORDINATZEKO EGITURARI BABESA:** Kasuen kudeaketa zuzena egiten ari diren batzordekideei gure babesa eta laguntza eman.

Zeharkako eragileak

Zeharkako eragileak bezala izendatu ditugu Zizurkilen herri mailan indarkeria matxistaren arloan, zuzenean ez bada ere, lan egin dezaketen eragileak. Hauek ez dute indarkeria matxista pairatzen dutenen arreta eta esku-hartzean zuzenean parte hartzen. Hala ere, haien jarduna oso garrantzitsua da, batik bat gizartea sentibilizatzen eta indarkeria hauen aurrean herri bezala babesa eskaini eta erantzuten. Esku-hartze prozesuetan zuzenean parte hartzea ez badagokie ere prozesu guztia akonpainatzen eta zuzeneko eragile horien jarduna lagundu edo ondo egiten dela zaintzen ere zeregin garrantzitsua dute. Hala ere, kasu honetan Hezkuntza arloa zeharkako eragileetan egokitzea erabaki da bai udaletxetik baita haiek ere. Nolabait, herriko bi ikastetxeak eremu honetan erosoago sentitzen ziren eta beraien nahia errespetatzea erabaki da prozesu honetan zehar.

Jarraian Protokolo honen diseinuan parte hartu duten zeharkako eragile bakoitzak bere lekutik indarkeria matxista kasuen aurrean daukaten zeregin eta funtzioetan sakonduko da.

HEZKUNTZA esparruaren jarduna

Esparru honetan dagoeneko beraien prozedura zehaztua dute, eta nahiz eta prozesu honetan ez parte hartu zuzeneko eragile bat bezala, hemen beraien prozedura formala jasotzea erabaki da.

KASUISTIKAREN ARABERA:

- Ikasle batek beste ikasle bati
- Zentroko langile batek ikasle bati
- Ikasle bati senide/zentroko langile ez den batek
- Zentroko langile bati
- Ikasle baten amari

IKASLE BATEK BESTE IKASLE BATI

“KiVa bullying edo eskola-jazarpenaren aurkako programa” eta “Berdinen arteko tratu txarren aurrean heziketa zentroentzako ekintzen gidan” jasotako jarduera protokoloa aplikatzen dira:

- Informazioa jasotzea: Identifikazio datuak jasotzea zentroari, inplikaturako ikasleei, eraso mota eta honen larritasunari buruzkoak.
- Kasuaren aurreazterketa eta urgentziazko esku-hartzeak burutzea:

- Zuzendaritza taldeak hauek baloratu eta diseinatzeko beharrezkoak diren pertsonak deituko ditu: orientatzailea, aholkularia...
- Eraso jasandako ikaslearen berehalako segurtasuna bermatzeko neurriak hartuko dira.
- Familiei lehenengo jakinarazpena egingo zaie. Horretarako, banakako elkarrizketak burutuko dira erasotua eta bere familiarekin, eta erasotzailea eta bere familiarekin.
- Honakoak izango dira elkarrizketaren helburuak:
 - o Gertatutakoaren informazioa eman eta biltzea.
 - o Familien gertaerarekiko ezagutza maila neurtu eta hartu dituzten neurriak (baldin baleude) ezagutzea. Horrez gain, familiei hartu(ko) diren neurrien berri eman eta hauen inguruko iritzi/ekarpenak jasotzea. Azkenik, salaketa jarri edo jasotzearen aukeraz jakinaraztea (egindakoa delitu izan baliteke).
- Informazioa osatzea, egiaztatzea eta aztertzea: Horretarako iritzitako galde-sorta egingo da, elkarrizketa eta barrekin, diskrezioz.

Eskuratutako informazio ikusita, berdinen arteko tratatu txarrak izan ote diren erabakiko da, hezkuntzako ondorioetarako. Hezkuntzako ikuskatzaileari gertatutakoa jakinaraziko zaio:

- Idatziz: gertatuaren berri, honi jarritako kalifikazioaren berri eta hartutako neurrien berri emanez.
- Salaketarik edo Arartekoari kexarik jarri ezker, horren txostena ere aurkeztuko da.

Zentroak ekintza plana prestatuko du. Horretarako Berritzegune eta Hezkuntzako Ikuskatzaileari aholkua eska daiteke. Planean jasoko dira:

- Zentroak hartu beharreko neurriak.
- Erasotu eta erasotzaileari, familiei, gainerako ikasle eta irakasleei dagozkien neurriak.
- Kasuaren larritasunaren arabera, bestelako zerbitzu eta erakundeei igorritako komunikazioa.
- Inplikaturako familiei Ekintza Planean proposaturako neurriak jakinaraziko zaizkio: eraginpeko ikasleekin hartutako neurri indibidualak, antolakuntza eta prebentziozko neurriak
- Hartutako neurriei jarraipena eta ebaluazioa emango zaie. Horretarako, zentroko zuzendaritzak, neurriak gauzatzeren ardura izango du. Horrez gain, ikuskatzaileari aldizka jakinaraziko dio neurriak zenbateraino ari diren betetzen eta inplikaturako ikasleen gizarte heziketako egoera nolakoa den.

ZENTROKO LANGILEREN BATEK IKASLE BATI

Zentroko langileren batek ikasle bati erasotu ezker:

- Lehenengo, zentroko zuzendaritza taldeari jakinaraziko zaio.
- Honek Hezkuntzako Ikuskatzailtzari jakinaraziko dio gertatutakoa.
- Hau guztia, kasu bakoitzari dagozkion diziplinako neurri eta neurri judizialak kaltetu gabe.

ZENTROKO LANGILE BATI

Zentroko langile edo irakasle bati erasotzen dieten kasuan, bi aukera mota aurkez daitezke: zentroko beste langile edo irakasleren batengandik jasotzea eraso edo indarkeria, edo kanpoko beste norbaitengandik jasotzea.

Lehenengo kasuan, hau da, zentroko beste langile edo irakasleren batengandik badator eraso:

- Lehenengo, zentroko zuzendaritza taldeari jakinaraziko zaio.
- Honek Hezkuntzako Ikuskatzailtzari jakinaraziko dio gertatutakoa.
- Hau guztia, kasu bakoitzari dagozkion diziplinako neurri eta neurri judizialak kaltetu gabe.

Bigarren kasuan, hau da, zentrotik kanpoko beste norbaitengandik badator eraso:

- Zentroko zuzendaritza taldeari jakinaraziko zaio.
- Honek delitu zantzuak daudela irudituz gero, honako eragileei jakinaraziko die:
 - o Larrialdikoa bada, SOS Deiei (112)
 - o Gizarte Zerbitzuei
 - o Hezkuntzako Ikuskatzailtzari

IKASLE BATEN AMARI


Hezkuntza formaleko zentroetan topatu ohi den kasurik ohikoena da hau. Honelakoetan, honakoak lirarteke eman beharreko urratsak edo normalean ematen diren:

Kasuaren berri normalean ikasleak behatuz edo honek esandakoetatik jasotzen dute, edo bestela, guraso eta tutorearen artean harremana konfiantzazkoa bada, emakumeak tutoreari kasuaren berri ere eman diezioke. Gizarte zerbitzuek ere ematen diete kasuen berri, inplikatuak hezkuntza zentroarekin erlaziorik bat dutenean. Halakoetan:

- Zentroko zuzendaritza taldeari jakinaraziko zaio.
- Honek delitu zantzuak daudela irudituz gero, honako eragileei jakinaraziko die:
 - o Larrialdikoa bada, SOS Deiei (112)
 - o Gizarte Zerbitzuei
 - o Hezkuntzako Ikuskatzailetzari

Aurreko 4 ataletan ezarritakoarekin bat, tratu txarren edo sexu indarkeriaren ezagutza dagoenean, biktimei eta honen familiari informatuko zaie hezkuntzaren esparruan jasotzeko eskubidea duten zerbitzu eta prestazioez.

HEZKUNTZA ARLOKO JARDUNA



HERRIKO KIROL ELKARTEA ETA OSTALARIAK

Zizurkildar orok, herritar gisa, indarkeria matxistaren aurrean, indarkeria hau eskubide urraketa larria izanik, indarkeria honen aurrean aktiboki jarduteko betebeharra dauka.

Honakoak dira herritar gisa indarkeria matxistaren aurrean jarduteko ditugun zereginak eta ondorioz herri elkarte edo ostalari bezala ere:

- **PREBENTZIOA:** Indarkeria matxistaren aurrean kontzientzia kritikoa garatu eta hedatzen saiatu.
- **LAGUNTZA EMOZIONALA:** Indarkeria matxista kasuren bat bizitzen ari den norbait laguntza eske badator:
 - Lehen gauza gure babesa ematea: entzun, bakarrik ez dagoela adierazi, ahal den neurrian laguntza eskaini eta gertuko norbait deitzea nahi duen galdetu.
- **INFORMAZIOA EMAN ETA BIDERATZEA:** Indarkeria matxista kasuren bat heltzen bazaigu:
 - Indarkeria jaso duenaren beharrak entzun eta horren arabera Gizarte Zerbitzuetara joateko gomendatuko diogu (bertan informazio zabalagoa eta beste zerbitzuetara sarbidea izango duelako. Adib. SATEVI_biktimentzako laguntza zerbitzua 900 840 111).
 - Ez badu Gizarte Zerbitzuetara joan nahi guk honako informazioa emango diogu (SATEVI_biktimentzako laguntza zerbitzua 900 840 111)
- **AKONPAINAMENDUA:** Inguruan indarkeria matxista pairatzen ari den norbait badugu eta prozesuan akonpainatzeko laguntza eskatzen badigu laguntza hori eman.

OSO GARRANTZITSUA:

Horrelako prozesuen aurrean oso garrantzitsua da akonpainamendua. Prozesu luzeak eta gogorrak izan ohi dira eta akonpainamendu profesionalaz gain (abokatu, gizarte langile, psikologo...) prozesu guztian zehar (salaketa jartzea, deklarazioak, epaiketa...) konfiantzazko norbaiten laguntza eta akonpainamendua ezinbestekoa da.

- **SALAKETA eta ERREPARAZIOA:** Indarkeria matxistaren aurka antolatzen diren salaketa ekimenetan, izan eraso konkretu baten aurrean, izan orokorrean, parte hartu.

6

Indarkeriari aurre
egiteko prozesuan
kontutan hartu
beharreko gakoak
eta printzipio
gidariak

Kontutan hartu beharreko gakoak eskuhartze feminista bat izan dadin

Txosten hau osatzeko saioetan parte hartu duten eragileek hala erabakita, honakoak lirateke Zizurkilen indarkeria matxistari aurre egiterako orduan **kontutan hartu beharreko gakoak eskuhartzea feminista izan dadin**:

✓ **INFORMAZIOA eta EZAGUTZAN oinarritutako erabakiak:**

Indarkeriari aurre egin nahi dion emakumea artatzeaz arduratuko den pertsonak, ahal dela emakume batek, hortik aurrerako ibilbideen inguruko **INFORMAZIOA** izan dezala, baita indarkeriari aurre egiteko prozesuetan eman ohi diren bizipen ezberdinen inguruko **EZAGUTZA** ere.

- Indarkeriari aurre egin nahi dion emakumeari existitzen diren aukera ezberdinak erakutsiko dizkio: abantailak, zailtasunak... Bide batez, laguntza lortzeko existitzen diren eragile eta baliabide ezberdinen inguruko informazioa emango dio.
Horretarako, txosten honetako [Tokiko errekurtsoen gida](#).
- Pertsona horrek, emakumea artatzeaz arduratuko denak, argi izan beharko du indarkeriari aurre egiteko **norengana jo** behar den, egoeraren arabera.
- Bideratzeaz gain, garrantzitsua da erakunde/espazio ezberdinetan emango diren **urrats nagusiak** zeintzuk diren ezagutzea, emakumeari hauen berri eman eta emakumeari bere prozesuaz jabetzen laguntzeko.

Oso garrantzitsua da indarkeriari aurre egin nahi dion **emakumeak hartuko dituen erabakiak modu kontziente eta informatu batean hartzea**, eta bide batez, **prozesua** bera **ahalduntzailea** izatea. Horretarako, ibilbide ezberdinen, indarkeriari aurre egiteko modu ezberdinen, eta baliabide ezberdinen inguruko ahalik eta informazio osatuena izatea behar-beharrezkoa da.

✓ **JABEKUNTZA eta ERRESPETUA helburu duten prozesuak:**

Informazioa emateaz gainera, oinarritzkoa da artatzea nola ematen den. Beraz, erasoak pairatu duen emakumearekiko hartu-emanean honako irizpide hauek hartuko dira kontutan:

- **EZ EPAITZEA:**

Emakume bat erasotua denean, eraso horri ez zaio garrantzirik kenduko. Gertatutakoa kontatzen ari delarik egingo zaizkion galdera edo jarreraren bitartez erasotua epaitzea ekidin beharko da, neutraltasun bat mantenduz. Horretarako, sekula ez da erasotuaren

hitza zalantzan jarriko. Gainera, emakumeak izan dezakeen itxura, jarrera, jatorri, janzkera edota bestelako ezaugarriengatik epaitzea ere ekidin beharko da.

○ **BERE HITZA ETA NAHIA ERRESPETATZEA:**

Lehenengo artatzearen ondoren, aukera ezberdinen inguruko informazioa eta azalpenak eman zaizkionean, hartzen dituen erabakiak errespetatuko dira. Indarkeriari aurre egiteko prozesuarekin aurrera egin edo ez, bere erabakia da. Bera ez badago prest, prozesua ez da ongi aterako, eta gainera, egoera larritzeko balio dezake.

○ **GURASOKERIAK EKIDITEA:**

Indarkeriari aurre egiteko erabakia hartzen duen emakumea emakume indartsua da, kementsua. Horregatik, egoera eta emakumea bera heldutasunez tratatu beharrekoak dira, gurasokeriarik gabe, berdinetik berdinerako traturekin. Emakumeari sentiarazi behar zaio berak erabakiko dituela aurrera begirako urratsak, jabekuntza oinarri izango delarik.

○ **BABESA EMATEA:**

Emakumearekiko enpatiazko harremanak babesa eta gertutasuna ematen lagunduko du; entzutea, bakarrik ez dagoela sentiaraztea, baino aldi berean, bere espazioa ematea eta bere erritmoa errespetatzea. Horretarako, patxadaz entzungo da kontatu nahi duena, enpatiaz, epaiketak saihestuz, tonu egokian eta goxotasunez hitz eginez... emakumearentzako espazio segurua dela demostratu eta zaindua izango denaren sentsazioa emateko.

○ **ANONIMOTASUNA BERMATZEA:**

Uneoro emakumearen datuak, egon daitezkeen adinez txikiko edo menpekotasunak dituztenen datuak, ez zabaltzeko konpromisoak lehentasuna izango du. Baita ere emakumean azaldu ahal dituen kontakizunen ingurukoak ere, modu konfidentzial batean landuko dira.

○ **ERASOA PAIRATU DUENAREN TESTUINGURUARI GARRANTZIA EMATEA:**

Emakumeok pairatu ditzakegun zapalkuntzak anitzak dira, errealitateak ere anitzak diren heinean. Horregatik, indarkeriari aurre egiterako orduan ere, aniztasun hauek kontutan hartzea behar-beharrezkoa izango da, emakumeek bizi dituzten egoeren konplexutasuna

kontutan hartu gabe, beraientzat egoki eta aproposak diren neurriak hartzea zailtzeaz gainera, egoera larritzen lagundu bait dezake.

Protokoloaren printzipio gidariak

Honakoak izango dira protokoloaren printzipio nagusiak:

- **Laguntza osoa eta pertsonalizatua**

Protokolo honek aintzat hartzen dituen **emakumeen** eta horien **mende dauden pertsonen** arretak indarkeria-egoerek sortutako **premiak** hartuko ditu bere baitan, eta, horretarako, **egokienak diren zerbitzuetarako eta prestazioetarako bidea** emango die, kasu bakoitzean tartean izango diren inguruabar pertsonal eta sozialen arabera.

- **Berdintasuna**

Arreta **emakume guztiei emango zaiela bermatu** beharko da, honako ezaugarri hauek tarteko inor baztertu gabe: egoera zibila, sexu-orientazioa, adina, sinesmen edo ideologia, gutxiengo etniko, nazional edo linguistiko bateko kide izatea, maila ekonomikoa, nahiz ezgaitasun fisiko, psikiko edo sentorialak, edota beste edozein izaera pertsonal edo sozial. Halaber, beharrezko neurriak hartuko dira beren **egoera pertsonal eta sozialarengatik laguntza osoa jasotzeko zailtasunak dituzten emakumeen eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko**, bereziki, ezgaitasunak dituzten emakumeek eta emakume etorkinek, edozein dela ere beraien egoera administratiboa, eskubide horiek izan ditzaten.

- **Prebentzioa**

Jasotako jarraibide-multzoa aplikatuko da emakumeen aurkako indarkeria-egoerarik **errepikatu ez dadin**, ez emakume horien beraien aurka, ez haien kargu dituzten umeen eta nerabeen edo beraiekin bizi diren eta mendekotasuna duten pertsona helduen aurka.

- **Adinez txikien interesen defentsa**

Adinez txikiak ere genero-indarkeriaren **biktima zuzenak** diren heinean, tokiko protokoloa aplikatzeko garaian, biktimek beren kargu dituzten adinez txikiei arreta eskaintzeko eta horiek babesteko **beharrezkoak diren neurriak** hartuko dira, adinez txikien eskubideak, ongizatea eta garapen osoa bermatze aldera, betiere umeen eta nerabeen interes gorena kontuan hartuta.

- **Ahalduntzea eta normalizazioa**

Kasu bakoitzerako neurri egokiak hartzeko garaian, indarkeriaren biktima diren emakumeek **autonomia** eta **bizimodu normalizatua** izan dezaten ahalegina egin beharko da.

- **Eraginkortasuna eta arintasuna**

Protokolo honek biltzen dituen jarraibideak aplikatzeko, **antolaketa eraginkorra** eta **arina** bermatu beharko da, horrelako egoerek berezkoa duten urgentziak hala eskatuta **berehalakotasunez erantzuteko**.

- **Biktimizaziorik txikiena**


Protokolo honetan aipatzen den indarkeria pairatu duten emakumeen bigarren **mailako biktimizazioa ahal den gehien saihestuko** da, eta profesionalek eta erakundeek esku hartzearen ondorioz biktinek bizi dituzten eragozpenak ahalik eta gehien murriztuko dira.

Ilido horretan, protokolo honetan aurreikusitako arreta eskaintzeko **jarraibideak** eta **bideak** betetzea, eta inplikaturako erakunde ezberdinak koordinatzea profesionalen ardura izango da eta ez indarkeriari aurre egin nahi diotenak.


7

Prozesuaren ikuspegi orokorra


LESIO FISIKO EDOTA PSIKIKO LARRIAK DAUDENERAKO PROZEDURA:



LESIO FISIKO EDO PSIKIKO EZ LARRIA DAGOENERAKO PROZEDURA:



ERASO BAT EGON DA, ERASOA PAIRATU DUEN EMAKUME BAT GERTURATZEN ZAIZU...



HARRETAN KONTUTAN HARTZEKO IRIZPIDEAK:

- Artatze feminista izan dadila
- Emakumeak hartuko dituen erabakiak kontzienteak eta informatuak izan daitezela bermatu.
- Ez epaitu
- Bere hitza eta nahia errespetatu
- Bere ezagun edo familiarterko bat deitzea nahi duen galdetu.
- Gurasokeriak ekidin
- Babesa eman
- Anonimotasuna bermatu

8

Koordinazio eta
jarraipenerako
egiturak

Protokoloa diseinatzeko prozesuan zehar, lantaldeak protokoloaren koordinazio eta jarraipenerako egitura bat diseinatu da; instituzionala, indarkeriari aurre egiteko prozesuan zuzeneko artatzeaz arduratzen direnena (polizia, osasun eta Udala).

Jarraian daude jasota talde bakoitzaren osaketa, helburuak, funtzioak eta funtzionamendua. Guzti hau zehaztua badago ere, adierazi beharra dago dokumentu “bizia” dela; hau da, martxan jartzen denean, funtzionamendutik bertatik eta ibilbidean zehar egingo diren ebaluaketa ariketetatik erator litezkeen aldaketak edo proposamen berriak dokumentuari gehituko zaizkiola.

Zuzeneko eragileen taldea

Atal honen hasieran esan dugun moduan, Zuzeneko eragileen taldea erakunde ezberdinetako ordezkariak osatzen duten taldea litzateke, indarkeriari aurre egiteko prozesuan parte hartzen dutenena.

Hona hemen talde honen nondik norakoak:

Partaideak:

- Udaleko Berdintasun saila, ordezkaritza politikoa eta teknikoa.
- Udaleko Gizarte Zerbitzuak, ordezkaritza teknikoa.
- Osasun-zentroko ordezkaritza.
- Hernaniko ertzain-etxeko ordezkaritza.
- Zizurkilgo udaltzaingoaren ordezkaritza.

Helburuak eta funtzioak:

Honakoak dira “Zuzeneko eragileen taldeak” izango dituen helburu nagusiak:

1. Indarkeriari aurre egiteko prozesuan parte hartzen duten erakundeen arteko koordinazioa, egokia eta arina, bermatzea.
2. Zizurkilgo indarkeria matxistari aurre egiteko emakumeen erabiltzen dituzten prozeduren inguruko ikuspegi integrala jasotzea.

Helburu horien lorpenari begira, honako **funtzio** hauek egotzi zaizkio talde honi:

- Baliabideak, legeak, arauak eta bar, eguneratu.
- Kasuen jarduerak aztertu eta ebaluatu.
- Garrantzi handiko kasuetako esku-hartzea aztertu.

- Indarkeria kasuen aurrean koordinazioa bermatu.
- Osatu gabeko prozesuen analisia egin
- Indarkeria kasuen aurrean ematen den arreta baloratu, beharrezkoak diren aldaketak proposatuz.
- Zalantza edo konplikazioen aurrean kezka konpartitu eta irtenbide bateratuak bilatu.
- Eragile ezberdinen formakuntza beharrak detektatu eta proposatu.
- Prozesu guztiek helburu ahalduntzailea dutela bermatu.

Funtzionamendua eta lidergoa

Zehaztutako helburuak kontuan izanda, helburu horiek betetzeko espazio honek izan beharreko funtzionamenduaz honakoa da adostutakoa:

Biltzeko maiztasuna:

- **Urtean bitan** bilduko da programaturiko bi bileratan.
 1. Bilera: **Maiatzan**, goizez eta asteartean.
 2. Bileran: **Azaroan**, goizez eta asteartean.
- Taldeko edozein partaidek ez-ohiko bilera deitzeko aukera izango du hala behar dela baloratzen badu. Horretarako, Berdintasun sailarekin harremanetan jarri beharko da, sail honek deialdia partaide guztiei luzatzeko.

LIDERGOA: Espazio honen lidergoa **Berdintasun sailak** izango du **Gizarte Zerbitzuetako sailaren laguntzarekin**. Hauek izango dira bere **ardurak** espazio honekiko:

- Saioen kudeaketarekin lotutakoak:
 - o Bilerak deitu eta gai ordenak prestatzea.
 - o Bilerak dinamizatzea.
 - o Bileran landuko diren materialak prestatzea.
 - o Bileran hitz egindakoak jasotzea eta akta partaide guztiei helaraztea.
- Zubi lanak egitea, zuzeneko eragileen taldearekin edo bestelako arloekin.
- Taldea elikatzea: ebaluaketak egiteko beharrezko datuak ekartzea, eta bar.

Koordinazio espazioaren bilerak baino lehen eta gero Berdintasun saila eta Gizarte Zerbitzuen arteko bilera egingo da. Modu honetan bi sail hauen arteko koordinazioa bermatuko da.

9

Erantzun publikoa artikulatzeko prozedura

Komunikazio instituzionala da instituzio publikoek esan beharrekoa aditzera emateko bidea; horren bidez, alde batetik, biztanleriarekin duten harremana sendotzen dute eta bestetik, bere izaera osatzen duten balore eta printzipioak jakinarazten dituzte. Komunikazioak, egokia eta eraginkorra izateko, argia, osoa eta koherentea izan beharko du instituzioa osatzen duen beste elementu batzuekin.

Oro har, gertatzen diren erasoen aurrean ematen den erantzun publikoa bideratu behar da emakumeen kontrako indarkeriazko jarrerak ez direla toleratzen erakustera, zorrotz eta inolako zalantzarik gabe adierazita, ez dago inpunitaterik ez isiltasun legitimatzailearik erasotzaileentzat, beti-beti errespetatuko da horien errugabetasun presuntzioa eta ez da zalantzarik onartuko erasoak jaso duenaren kontakizunaren sinesgarritasunaren gainean.

Indarkeria matxista kasuen aurrean jarraitu beharreko erantzun publikoari buruzko irizpideak

- Erantzun sendoa

Indarkeria sexistarekiko zero tolerantziaren kultura eraikitzeko ezinbestekoa da salaketan argi eta erabakitasunez jokatzeko, eta edozein indarkeria ekintza ukatzen, normaltzen, minimizatzen edota justifikatzen duten argudio eta adierazpenak sistematikoki desmuntatzea. Indarkeriaren adierazpen guztiak dira arbuigarriak.

- Errespetuzko erantzuna

Gerta daitezkeen egoeretan are sakonagora joz, biktimek, sarritan, bere burua ez erakustera jotze hori biktimen gainean ezartzen den estigma sozialaren sintomatzat ulertzea batetik eta, bestetik, norberaren babeserako neurritzat; horrenbestez, erakundeek errespetatu eta bermatu egingo dute hori. Eta garrantzitsua da horrela jokatzeko. Alde batetik, erantzun publikoa egoki eta proportzionala izan behar duelako, kasuen banakako analisisian oinarrituz eta errespetua eta enpatiarekin jokatzeko, eta bestetik erantzun horrek herritar guztientzako elementu hezitzaile bihurtu nahi duelako; beraz, berehalakotasunaren presioen aurrean blindatuta jardun behar da. Berehalakoa izan behar du biktimari ematen zaion arreta; horrela, biktima eta beraren ingurua zaintzeak lehentasuna izango du.

- Inpunitatea gelditzea

Indarkeria sexista gertatzen den kasuetan, erantzukizuna erasotzaileena da. Inoiz ez biktimena. Eta inpunitaterik izan ez dadin, garrantzitsua da gizarteak eta erakundeek tinko erakustea erasotzaileen ekintzek eragiten duten arbuio soziala.

- Berbiktimizazioa saihestea

Garrantzitsua da mezueta gogoratzea indarkeriaren erantzukizuna indarkeriaz baliatzen dutenena dela, ez biktimena; eta saihestu egin behar da biktimak estigmatizatzen dituen mekanismorik martxan jartzea.

Erantzuna koordinatzeko egitura

Prozedura: Egitura muina eta prozedurak

Erantzuna koordinatzeko **egituraren muina** honakoek osatuko dute:


- Berdintasun zinegotziak.
- Gizarte Zerbitzueta teknikiariak.

Talde muinak gertatzen den eraso**a** baloratuko du eta beharrezkoak diren **komunikazio bideak irekiko** ditu erasotuekin eta **beharrezko informazioa** bilduko du.

Jasotako informazioaren arabera **egoera baloratuko** du eta eman beharreko hurrengo **pausuak** zeintzuk diren **erabakiko** dute. Horren arabera **taldea handituko** dute edo ez. Egitura hau malgua eta egoeraren arabera forma bat edo beste hartu ahalko du, helburua da egitura egoerara egokitzea eta ez alderantziz.

Taldea handitzeko momentuan bi maila aurre ikusten dira:

- **Lehen uztia:** Gizarte Zinegotzia, Berdintasun teknikaria eta/edo alkatea.
- **Bigarren uztia:** Mugimendu feminista, aniztasun teknikaria eta/edo aholkularitza.



Taldearen jokabide kodea

Talde honen partaideek honako jokabide kodea onartuko dute:

- Konfidentzialtasuna
- Gardentasuna
- Adostasunetara heltzeko jarrera
- Erantzun bateratu baterako aurretiko prestutasuna izatea
- Herriko mugimendu feminista informatuta mantentzea.

10

Tokiko
errekurtsoen
gida

Atal honetan, Zizurkilen indarkeriari aurre egiten laguntzeko dauden errekurtsioak daude jasota. Alde batetik, ERAGILEAK daude: zerbitzuaren izena, helbidea, telefono zenbakia, posta elektronikoa, ordutegia, eta zerbitzuaren inguruko deskribapen laburra, tokikoetatik hasita eskumen zabalagoa dutenentzako.

Ondoren, bigarren zatian, BALIABIDEAK datoz: baliabide ekonomikoak, egoitza baliabideak eta bestelakoak. Guztietan, baliabide hauek kudeatzen dituen erakundea agertzeaz gainera, deskribapen labur bat eta tramitaziorako oinarritzko informazioa jasotzen da.

Indarkeriari aurre egiteko ERAGILEEN zerrenda

Jarraian, Zizurkilen indarkeriari aurre egiteko prozesuan erreferentziatzeko eragileen zerrenda jasotzen da. Zenbaiten kasuan, beren jardun eremua ez da zehazki edo soilik Zizurkil, baina praktikan jotzen duten papera kontutan hartuta zerrenda honetan eskuragarri izatea beharrezkotzat jo da (esaterako, aniztasun zerbitzua, Asuncion klinika).

Udaleko zerbitzuak

Gizarte Zerbitzuak	Berdintasun saila
<i>Muñoa kaleko 36 behean</i>	Ernio Bidea 9A, behea
943-693930	943691012
aiztondo@aiztondo.eus (orokorra) anabel@aiztondo.eus (gizarte langilea)	kultura@zizurkil.eus
Astelehenetik ostiralera 08:00-15:00	Astelehenetik ostiralera 9:30 -15:00

Informazioa, balorazioak, aholkularitza eta prestazioen kudeaketa.

Emakumeen eskubideen eta dauden baliabideen inguruko informazioa eta orientabideak.

Mugimendu feminista eta emakume talde antolatuak

Aiztondoko Talde Feminista
majumak@gmail.com

Zizurkilgo bestelako eragileak

Otaño herri eskola	Zubimusu Ikastola
Pagamuño, s/n,	Kale Berria, 55,
943 69 14 78	943 69 23 21
pedromariaotano@pedromariaotanolhi.net	zubimusu@ikastola.eus

Osasun zerbitzuak

Zizurkilgo osasun etxea	Asuncion klinika
Erniobea Kalea, 2	Izaskungo aldapa z/g, Tolosa
943 00 69 70	94369 70 00
irati.izaarnaiz@osakidetza.eus	belate_kontsultak@clinicadelaasuncion.com
billabona@osakidetza.eus	
Astelehenetik ostiralera 08:00etatik 17:00etara	24 ordu

Administrazio-arreta, familiako medikuntza, pediatria, erizaintza eta emagina.

Larrialdi zerbitzua eta espezialitateak.

Ertzaintza eta Udaltzaingoa

Hernaniko ertzain-etxea	Zizurkilgo udaltzaingoa
Villa Inesita, Barrio Latxunbe, s/n, Hernani	Atxulondo kultur etxea, Ernio Bidea 13
943 53 88 40	680 411 793 / 627 985 630
adm_hernani@ertzaintza.eus	udaltzaingoa@zizurkil.eus
24 ordu	Astelehenetik ostiralera 07:45-21:00

Epaitegia

Tolosako epaitegia
San Juan, 3 (Tolosa)
943 00 26 05
nfo-justizia-tolosa@justizia.eus
9:00-14:00

Gipuzkoa edota EAE mailako beste eragileak

SOS Deiak
112
24 ordu

Zerbitzu honek, kasuan kasu, beharrezko zerbitzuak aktibatzen ditu (poliziala, osasun zerbitzuak, etabar).

SATEVI
<i>Genero indarkeriaren biktimei laguntzeko telefono bidezko zerbitzu espezializatua</i>
900 840 111
24 ordu

Tratu txarren eta sexu indarkeriaren biktimei informazioa eta aholkularitza ematen dizkie. Hainbat hizkuntzatan eta entzumen azaroak dituzten pertsonentzat egokituta dago.

Gipuzkoako Gizarte Larrialdietarako Foru Zerbitzua
943 224 411 / 112
Gizarte politikak Txara II. Zarategi pasealekua, 99. Donostia
7:00-21:00 21:00-7:00 SOS Deiak urteko 365 egunetan

Gipuzkoako lurraldean gizarte zerbitzuen ordutegitik kanpo gertatzen diren gizarte larrialdiko egoerei erantzuteko zerbitzua.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua
900 10 09 28 (doakoa) 943 00 07 68
Justizia jauregia Teresa de Calcuta plaza, 1. Donostia.
<u>Goizetan</u> : Astelehenetik ostiralera, 08:30etik 15:00etara. <u>Arratsaldeetan</u> : astearte eta asteazkenetan, 16:30etik 19:00etara.

Biktimei informazioa eman eta laguntza eskaini (prozesua hasten den unetik eta honek irauten duen bitartean:

Tratu txarren eta sexu indarkeria bizi duten emakumeei berehalako erantzunak emateko: egoera ebaluatu ondoren, baliabide ezberdinak eskaintzen dira.

segimendua egin, laguntza psikologikoa eskaini, gizarte-baliabideetara bideratu, epaiketa eta deklarazioetara lagundu...).

Babesteko Agindua duten biktimei laguntza ematea.

Indarkeriari aurre egiteko BALIABIDEEN zerrenda

Baliabide hauen inguruko informazio zabalagoa udaleko Gizarte Zerbitzuetan lor daiteke. Sarbidea, zenbaitetan aukera gehiago badago ere, gizarte zerbitzuen bitartez izan ohi da.

Baliabide ekonomikoak

Baliabide hauek eskatu ahal izateko erasotuak GENERO INDARKERIA BIKTIMA denaren EGIAZTAGIRIA³ beharko du:

Gizarte Larrialdietarako laguntza (Udala)

- Aldian-aldian emango ez diren prestazio ekonomikoak dira, eta kasu bakoitzaren eskaera aztertu eta baloratu egiten da.
- Non eskatu: Udal Gizarte zerbitzuak.

Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (RGI)

- Oinarrizko behar pertsonal eta familiarrari aurre egiteko prestazio ekonomikoa da, baliabide nahikorik ez dutenentzat lan munduan irtenbide bat bilatzen laguntzeko.
- Non eskatu: Tolosako Lanbide (Euskal Enplegu zerbitzua).

Ordainketa bakarra (Eusko Jaurlaritza)

- Eskubidea izateko 6 hilabetez erroldatua egon behar da udalerrian.
- Lehenengo hilabeteetan emakumeak bere oinarrizko beharrei (etxebizitza...) aurre egin ahal izateko diru-kopuru bat da.
- Babes agindua eta sententzia edukitzea beharrezkoa da.
- Langabezian egon.
- Non eskatu: Udaleko gizarte-zerbitzuak, Lanbide (Euskal Enplegu zerbitzua) eta Eusko Jaurlaritzan.

Inserziorako Errenta Aktiboa (RAI)

- Udalerrian erroldatuta 6 hilabete baino gutxiago daramatanentzat.
- Non eskatu: Tolosako SEPE (Servicio Público de Empleo Estatal, lehen INEM).

³ Urruntze agindua edo delitu zantzuak daudela adierazten duen fiskaltzaren informea.

Egoitza baliabideak

ETXEBIDE (Etxebizitzaren Euskal Zerbitzua)

- Baliabide hauek eskatu ahal izateko erasotuak GENERO INDARKERIA BIKTIMA denaren EGIAZTAGIRIA beharko du.
- Babes ofizialeko etxebizitza zuzenean lortzeko aukera dago, edota etxebizitza lortzeko aukera gehiago izatearena.

ALOKABIDE (Eusko Jaurlaritza, Babestutako Alokairu Zerbitzua)

- Baliabide hauek eskatu ahal izateko erasotuak GENERO INDARKERIA BIKTIMA denaren EGIAZTAGIRIA beharko du.
- Babes ofizialeko etxebizitza zuzenean lortzeko aukera dago, edota etxebizitza lortzeko aukera gehiago izatearena.

Bestelako baliabideak

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: PROGRAMAK ETA ZERBITZUAK

Banakako laguntza psikosoziala

- Eskaera egiteko EZ DA SALAKETARIK BEHAR, nahikoa izango da gizarte langileak gertakarien harira erredaktatutako gizarte txostena. Aldundiko batzordeak kasuaren balorazioa egiten du, onartu edo ez onartu erabakitzeko.
- Laguntza eraso jaso duten emakume eta bere seme-alabei zuzenduta dago, baita erasotuei ere.
- Eskaintzen diren saioak:
 - Kasuaren balorazioa egiteko 3 saio.
 - Beharra dagoela aitortu ezker, 18 saio.
 - Aurreko saioak bukatuta beharrak jarraitzen duela erabaki ezker, beste 9 saio.

Arreta psikologiko banakakoa eta taldekakoa

- Zerbitzu hau indarkeria matxista jasan duten emakumeei, bere ardurapekoei eta erasotzaileari berari ere zuzentzen zaio.

- Ez du axola ze eremutan eman den indarkeria matxista hori.
- Helburua, beharrian psikoemozionalak asetzea litzateke, ikuspegi feminista batetik eta halako emakumeak ahalduzaren aldeko ikuspegi batetik begiratuta.

Aholkularitza juridikoa edo arreta sozio-juridikoa

- Eskaera egiteko EZ DA SALAKETARIK BEHAR, nahikoa izango da gizarte langileak gertakarien harira idatzitako gizarte txostena.
- Lege informazioa eta aholkularitza eskaintzen da esparru juridikoko baliabideei eta familia-zuzenbideari buruz.
- 3 saio.

Arreta psikosozial anbulatorioa

- Indarkeria matxista jasan duten emakumeei dago zuzendua, egoitza-baliabide batean sartu nahi ez dutenak edo haietako batean egonaldia amaitu berri dutenak, eta beren beharrezanez egokitutako jarraipen anbulatorioa behar dutenak.
- Diziplina arteko esku-hartze mota bat da, eta esku-hartze anbulatorioko bi talde ditu:
 - Hainbat arrazoiengatik harrera zentro batean bizi ez diren emakumeentzako segurtasun, kontzientiazio eta akonpainamendu programa (6 hilabeteko iraupena, salbuespenekin).
 - Egonaldi laburreko edo ertaineko zentroan bere egonaldia amaitu ondoren, banakako edo familiako arreta-planaren jarraipena behar duten emakumeentzako jarraipen programa, jarrai dezaten ahalduzko beren ibilbidearekin (6 hilabeteko iraupena, salbuespenekin).

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA: ZENTROAK

Berehalako harrerako edo egonaldi laburreko zentroa (Urrats)

- Indarkeria matxista jasan duten emakumeei eta haren ardurapekoei zuzendua.
- Eguneko 24 orduetan eta urteko egun guztietan berehalakotasunez jasotzeko modukoa.
- Bertan kasuaren balorazioa egin eta baliabiderik egokiena bideratzea proposatzen da.

Egonaldi ertaineko harrera zentroa (Bidean)

- Indarkeria matxista jasan duten emakumeei eta haren ardurapekoei zuzendua.
- Helburua babeseko eta aldi baterako egonaldiko eskaerei erantzutea.
- Esku-hartze espezializatu integrala.

Autonomia pisuak

- Indarkeria matxista jasan duten emakumeei eta hauen elkarbizitza unitateari zuzendua.
- Babes zentro batetik igaro ondoren egonaldi laburreko egonaldi bat behar dutenak, ez dutelako berehalako etxerik, indarkeria matxistaren egoera batetik suspertu eta hura gainditu ahal izateko.
- Beti ere intentsitate handiko babes neurriak behar ez badira.

10

Baimen
eskaerak

Nik, andreak, honako
NAN / Pasaportea / Bizileku-baimena / Identifikaziorako bestelako dokumentu hau dudanak:
.....,

AKTA honen bidez honako hau adierazten dut:

Hemen agertzen diren neuk emandako datuak
izeneko fitxategian sartuko direla azaldu didate, baita artxibategi horren titularra Zizurkilgo
Udala dela ere. Horren helburua, dauden zerbitzuen jarduera koordinatuz, niri eta nire
ardurapean dauden pertsonen arreta osoa ematea dela esan didate.

Halaber, beste honako hau esan didate:

- Informazio hau baliagarria izango da datu objektiboetan oinarrituriko politika publikoak
sortzeko, eta ikerketarako zein estatistiketarako erabiliko dute.
- Agertzen diren datu batzuk nahiz datu guztiak erabiltzeko baimena ez ematea neure
eskubidea da.
- Baimena edo adostasuna ez emateak ekar ditzakeen ondorioak zeintzuk diren azaldu
didate.
- Datu hauek ikusteko, aldatzeko, baimena kentzeko eta ezadostasuna adierazteko
eskubidea izango dut.

Honenbestez, eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari
jarraiki, libreki nire adostasuna adierazten dut.

Data:

Sinadura:

Nire alaba 14 urte baino gutxiago dituelarik, eta ni ama / aita / tutorea izanik, datuak
jasotzeko nire adostasuna adierazten dut.

Halaber, zehaztuta agertuko diren honako datu hauek, baldin eta neu ados banago, entitate hauetara bideratuko direla esan didate:

Identifikaziorako datuak: Izena, Adina, Harremanetarako telefonoa.

- ☐ Udaleko gizarte-langileari.
- ☐ Udaleko berdintasun sailari.
- ☐ Osasun-zentroko nire sendagileari/ei eta erizainari/ei.
- ☐ Osasun-zentroko nire seme-alaben sendagileari eta erizainari.
- ☐ Nire seme-alaben hezkuntza-zentroko zuzendariari.
- ☐ Herriko emakume talde edota mugimendu feministari.
- ☐ Ertzain-etxeko arduradunari.
- ☐ Udaltzainak.
- ☐ Beste batzuk (aldundia, abokatuak, lanbide... momentuko erabakiaren arabera).

Erasotzailea urruntzeko agindua badago, hitzorduetan elkartzea ekiditeko, honako hauei jakinarazteko eskatzen dut espresuki.

☐ OSASUN ETXEA

Erasotzaileak eta biktimak seme-alabak badituzte, urruntzeko agindua dagoela jakinarazi behar zaio pediatria-zerbitzuari, ama eta aita hitzordu berean elkartzea ekiditeko.

☐ IKASTETXEA

Gainera, erasotzaileak seme-alabengandik urruntzeko agindua dauka edota aitaren bisitaldiak mugatuta daude.

☐ UDALEKO GIZARTE ONGIZATE SAILA

Honenbestez, eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraiki, libreki nire adostasuna adierazten dut.

Data:

Sinadura:

Nire alaba 14 urte baino gutxiago dituelarik, eta ni ama / aita / tutorea izanik, datuak jasotzeko nire adostasuna adierazten dut.

11

Datu
bilketarako
fitxa

INDARKERIA KASUEN DATUAK JASOTZEKO EREDUA				
1. Koordinaziorako datuak				
Identifikazio kodea:		Harrera egiten den data:		
Erakundea				
Profesionala				
Bidali duen erakundea	Ertzain Etxea		Bere kabuz	
	Epaitegia / ofizioko txandakako abokatu espezializatua			
	Osasun Zentroa			
	Tolosako Osasun Zentroa			
	Asunzion Klinika			
	Donostiako Ospitalea			
	Osasun Mentala (Donostiako Psikiatrikoa)			
	Udaleko Gizarte Zerbitzuak			
	Larrialdietako Gizarte Zerbitzua			
	Biktimari Laguntzeko Zerbitzua			
	24 orduko informazio telefonoa			
	Hezkuntza Zentroak			
	Berdintasun saila			
	Emakume elkarteak edo talde feministak			

	Beste bat. Zehaztu zein:			
2. Emakumearen datu pertsonalak				
Jaioterria		Nazionalitatea		
Noiztik dagoen udalerrian		Udalerrian erroldatu zen eguna		
Egoera administratiboa	<i>Erregularra</i>		<i>Irregularra</i>	
2.1. Egoera zibila				
Ezkondua		Ezkongabea		
Dibortziatua. Ezkontza baliogabetua		Erregistratutako bikote harreman adostua		
Banantzeko edo dibortziazeko prozesuan		Erregistratu gabeko bikote harreman adostua		
Banandua (izatez)		Alarguna		
Banandua (legez)		Besta bat:		
Oharrak:				
2.2. Egoera ekonomikoa				
Langilea		Pentsioduna		
Langabetua		Beste baliabide batzuk		
Oharrak:				
2.3. Etxebizitzari lotutako egoera				
Etxebizitzarik gabe		Familiaren etxebizitza		
Norbere etxearekin		Ostatu hartuta edo apopilo		

Etxebizitza alokatua			Babes edo etxe soziala		
Etxebizitza erabiltzeko baimena			Beste bat:		
Oharrak:					
2.4. Diru-sarrerak					
Indibidualak			Guztira (bikotearena)		
2.4. Ezintasuna					
B A I		Fisikoa			Psikikoa
E Z		Menpekotasun maila			Elbarritasun maila
		Oharrak:			
2.5. Bere ardurapean dituen seme-alabak					
Kopurua:					
Jaiotza data:		Sexua		Eskolarizatua dago?	BAI EZ
.....		Femeninoa		Non dagoen eskolarizatua:	
.....		Maskulinoa			
.....		Beste bat			
Jaiotza data:		Sexua		Eskolarizatua dago?	BAI EZ

.....	Femeninoa		Non dagoen eskolarizatua:		
.....	Maskulinoa				
.....	Beste bat				
Jaiotza data:	Sexua		Eskolarizatua dago?	BAI	EZ
.....	Femeninoa		Non dagoen eskolarizatua:		
.....	Maskulinoa				
.....	Beste bat				
Jaiotza data:	Sexua		Eskolarizatua dago?	BAI	EZ
.....	Femeninoa		Non dagoen eskolarizatua:		
.....	Maskulinoa				
.....	Beste bat				
2.6. Bere ardurapean dituen beste batzuk					
Kopurua					
Jaiotza data:					
Mendekotasun mota	Fisikoa		Soziala		
	Ekonomikoa		Burukoa edo kognitiboa		
	Oharrak:				
Jaiotza data:					
	Fisikoa		Soziala		

Mendekotasun mota	Ekonomikoa		Burukoa edo kognitiboa	
	Oharrak:			
Jaiotza data:				
Mendekotasun mota	Fisikoa		Soziala	
	Ekonomikoa		Burukoa edo kognitiboa	
	Oharrak:			
2.7. Laguntza edo sare soziala				
Artatutako emakumeak laguntzarik jasotzen du?			BAI	EZ
Familiarena			Talde/elkartaren batena	
Lagunena			Beste batena. Zein:	
2.8. Menpekotasun toxikologikoa				
EZ	BAI	Nolakoa?	Alkohola	Beste batzuk
2.9. Erasotzailearekin bizi da une honetan?			BAI	EZ
2.10. Oinarrizko errenta jasotzen ari da?			BAI	EZ
2.11. Inguruko beste norbaiten tratu txarrak jasaten ditu?			BAI	EZ
Baiezkoa bada, zehaztu norengandik jastaen dituen:.....				
.....				

3. Erasotzailearen datuak					
Jaioterria				Nazionalitatea	
Noiztik dagoen udalerrian				Udalerrian erroldatu zen eguna	
Egoera administratiboa		Erregularra		Irregularra	
3.1. Erasotuarekiko ahaidetasun harremana					
Zehaztu zein den:.....					
3.2. Egoera ekonomikoa					
Langilea				Pentsioduna	
Langabetua				Beste baliabide batzuk	
Oharrak:					
3.2. Ezintasuna					
B A I		Fisikoa		Psikikoa	
E Z		Menpekotasun maila		Elbarritasun maila	
		Oharrak:			

3.3. Menpekotasun toxikologikoa						
	BAI	Nolakoa?	Alkohola			Beste batzuk
3.4. Etxetik kanpo jokaera bortitza dauka						
EZ	BAI	Nolakoa?				
3.5. Aurreko harremanetan erasoak egin ditu						
EZ	BAI	Nolakoak?				
Oharrak:						
4. Indarkeria motari buruzko datuak						
4.1. Tratu txar mota						
Fisikoa			Psikologikoa		Sexuala	Ekonomikoa
4.2. Sexu indarkeria mota						
Erasoa		Familia eremua	Lana			
			Ikastetxea			
Abusua			Kalea			
			Cyber jazarpena			
Jazarpena			Telefonoa			
			Beste bat			
4.3. Indarkeria matxista						

Lesbofobia	Gizarte eremua		Fisikoa	Psikologikoa	Sexuala
	Familia eremua		Fisikoa	Psikologikoa	Sexuala
Homofobia	Gizarte eremua		Fisikoa	Psikologikoa	Sexuala
	Familia eremua		Fisikoa	Psikologikoa	Sexuala
Transfobia	Gizarte eremua		Fisikoa	Psikologikoa	Sexuala
	Familia eremua		Fisikoa	Psikologikoa	Sexuala
Sexuala izan bada, zehaztu:		Erasoa		Abusua	Jazarpena
Gizarte eremuan izan bada, zehaztu:		Ikastetxea	Lana	Talde/elkarte	Cyber jazarpena
					Beste bat
4.4. Azken erasotik pasatako denbora					
4.5. Tratu txarren iraupena					
4.6. Erasoen maiztasuna					
4.7. Osasun arreta jaso du?			BAI		EZ
4.8. Seme-alaben aurkako tratu txarrik egon da?			BAI		EZ
4.9. Seme-alabak tratu txarren lekukoak izan dira?			BAI		EZ

4.10. Egun salaketarik?	BAI	EZ
4.11. Aurrez salaketarik?	BAI	EZ
4.12. Epaiketan atzerantz bota izan da inoiz?	BAI	EZ
4.13. Babes agindua	Eskatu du	Onartu diote
	Ukatu egin diote	Ez du eskatu
<i>Onartu badiote, zein?</i>		
Behin-behineko espetxealdia		Seme-alaben zaintza
Gerturatzeko debekua		Mantenu pentsioa
Harremanetan jartzeko debekua		Adingabeen babesa
Familiaren etxebizitza erabiltzea		Bestelakoa:
4.14. Epai penala	BAI	EZ
Espetxeratzea		Bestelakoa:
Gerturatzeko debekua		Errugabetzea
Harremanetan jartzeko debekua		
4.15. Epai zibila	BAI	EZ
Etxebizitza erabiltzea		Mantenu pentsioa
Seme-alaben zaintza		Bestelakoa:
4.16. Egindako eskaera		
Informazioa		Orientazio juridikoa

Laguntza psikologikoa		Diru-laguntzak	
Behin behineko ostatua		Bestelakoa:	
4.17. Bere esku jarritako bitartekoa			
Informazioa		Orientazio juridikoa	
Laguntza psikologikoa		Diru-laguntzak	
Behin behineko ostatua		Bestelakoa:	
<i>Informazio osagarria:</i>			
<i>Fitxa bete duen profesionalaren balorazioa:</i>			
<i>Jarraipena:</i>			

